

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

-

ESTATUTOS SOCIALES

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

AURKIBIDEA

I. ATALBURUA. IZENA, HELBURUA, EGOITZA, ESTATUTUAK ETA BARNE ARAUDIA

1. KAPITULUA. IZENA, HELBURUA ETA HELBIDEA

1. artikulua. Izena
2. artikulua. Elkartearen helburua
3. artikulua. Elkartearen egoitza
4. artikulua. Iraupena eta lurralde-eremua

2. KAPITULUA. ESTATUTUAK ETA BARNE ARAUDIA ALDATZEA

5. artikulua. Estatutuak aldatzea
6. artikulua. Barne Araudia

II. ATALBURUA. BAZKIDEEZ

1. KAPITULUA. BAZKIDE MOTAK

7. artikulua. Bazkide izan daitezkeenak

2. KAPITULUA. BAZKIDIAK ONARTZEA

8. artikulua. Onartzeko baldintzak
9. artikulua. Onarpenaren inguruko erabakiak
10. artikulua. Onarpenaren inguruko erabakiari aurka egitea

3. KAPITULUA. BAZKIDEEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

11. artikulua. Elkarte eskubideen eta betebeharren hasiera
12. artikulua. Ekonomia-erantzukizunak
13. artikulua. Bazkideen betebeharrak
14. artikulua. Bazkideen eskubideak
15. artikulua. Informazio eskubidea

4. KAPITULUA. BAZKIDE IZATEARI UZTEA

16. artikulua. Bazkideak borondatez bazkide izateari uztea
17. artikulua. Bazkideak derrigorrez bazkide izateari uztea

III. ATALBURUA. ELKARTEAREN DIZIPLINA ARAUAK

18. artikulua. Bazkideen hutsegite motak
19. artikulua. Elkarte-hutsegiteagatiko zehapenak

- 20. artikulua. Zehatzeko prozedura
- 21. artikulua. Kaleratzea

IV. ATALBURUA. KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA

- 22. artikulua. Elkartearen Organoak
- 23. artikulua. Batzar Nagusiaren eskumenak
- 24. artikulua. Batzar Nagusirako deialdia
- 25. artikulua. Batzar Nagusiaren jarduera
- 26. artikulua. Boto-eskubidea
- 27. artikulua. Gehiengoak
- 28. artikulua. Batzar Nagusiak hartutako erabakiei aurka egitea
- 29. artikulua. Artezkaritza Kontseilua. Izaera eta eskumenak
- 30. artikulua. Artezkaritza Kontseilua osatzea eta berritzea
- 31. artikulua. Artezkaritza Kontseiluaren jarduera
- 32. artikulua. Artezkaritza Kontseiluko kargudunen funtzioak
- 33. artikulua. Artezkaritza Kontseiluko kideen eskubideak eta ardurak
- 34. artikulua. Administrazioaileek hartutako erabakiei aurka egitea
- 35. artikulua. Zaintza Batzordea
- 36. artikulua. Zuzendaritza

V. ATALBURUA. KOOPERATIBAREN EKONOMIA ARAUBIDEA

- 37. artikulua. Irizpide orokorrak
- 38. artikulua. Elkartearen kapitala
- 39. artikulua. Derrigorrezko funtsak
- 40. artikulua. Partaidetza bereziak
- 41. artikulua. Hasierako derrigorrezko ekarpena eta sartzeko kuota
- 42. artikulua. Bazkidearen derrigorrezko gutxienezko ekarpena
- 44. artikulua. Aldizkako kuota
- 45. artikulua. Borondatezko finantzazioa
- 46. artikulua. Ekarpinak ordaintzea eta balantzeak eguneratzea
- 47. artikulua. Ekarpinak eskualdatzea
- 48. artikulua. Ekarpinak ordaintzea
- 49. artikulua. Soberakinak banatzea
- 50. artikulua. Hezkuntzarako eta Kooperatiba-sustapenerako funtsa
- 51. artikulua. Galerak egozteak
- 52. artikulua. Langileen ordainsariak

VI. ATALBURUA. ELKARTEAREN DOKUMENTAZIOA ETA KONTABILITATEA

- 53. artikulua. Elkartearen dokumentazioa
- 54. artikulua. Kontabilitatea
- 55. artikulua. Kontuen Ikuskaritza
- 56. artikulua. Legelari aholkularia

VII. ATALBURUA. DESEGITEA ETA KITATZEA

- 57. artikulua. Desegitea
- 58. artikulua. Kitatzea

I. ATALBURUA. IZENA, HELBURUA, EGOITZA, ESTATUTUAK ETA BARNE ARAUDIA

1. KAPITULUA. IZENA, HELBURUA ETA EGOITZA

1. artikulua. Izena

Olabide Ikastola Kooperatiba Elkartea izeneko hezkuntza kooperatiba eratu da Vitoria-Gasteizen, Eusko Legebiltzarrak, abenduaren 20an, onartutako Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legearen printzipio eta xedapenekin, lege aginduekin eta honako estatutu hauekin bat etorruta.

2. artikulua. Elkartearen helburua

BAT.- Elkartearen helburua da irakaskuntza garatzea unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren maila, etapa, ziklo, gradu eta eredu guztietan, baita elkartearen helburua lortzen lagunduko duten eskolaz kanpoko jarduerak egitea eta eskolaz kanpoko zerbitzu osagarriak edo beste edozein zerbitzu ematea ere.

Olabide Ikastola Kooperatiba Elkartearen funtsezko helburuetako bat da ikasleek euskera ikasi, hobetu era ohiz erabil dezaten.

BI.- Elkarreak bere egitura eta funtzionamendua kooperatibaren printzipioekin bat etorritu dituko ditu eta kooperatiboki erabakitzen du bazkideen seme/alabei eman beharreko hezkuntza bere ikastetxeen bidez eta etorkizunean eratu ditzakeen ikastetxeen bidez, betiere dirurik irabazteko asmorik gabe eta itzulkin kooperatiboak debekatuta.

3. artikulua. Elkartearen egoitza

Elkarreak ondoko helbidean du egoitza: Lasarte errepidea, z/g, 01007 Vitoria-Gasteiz. Artezkaritza Kontseiluak erabaki dezake udalerrriaren eremuan tokiz aldatzea.

4. artikulua. Iraupena eta lurralde-eremua

BAT.- Kooperatibaren iraupena mugagabea izango da.

BI.- Arabako Lurralde Historikora zabaltzen da bere jardueraren lurralde-esparrua. Eremu hori bakarrik izango da bere bazkideekin kooperatibizaturiko baltzu-eragiketetarako, eta ez kooperatibak garatutako beste edozein jardueratarako.

2. KAPITULUA. ESTATUTUAK ETA BARNE ARAUDIA ALDATZEA

5. artikulua. Estatutuak aldatzea

BAT.- Batzar Nagusiak erabakiko du elkartearen estatutuetan edozein aldaketa egitea eta, gainera, honako baldintza hauek ere bete beharko dira:

- a) Proposamenaren egileek txosten idatzi bat egin behar dute eta horretan aldaketa justifikatu beharko dute.

- b) Deialdian behar bezain argiro azaltzea zein diren aldatu beharreko puntuak.

- c) Deialdian berariaz azaltzea bazkideek badutela eskubidea aztertzeko, elkartearen egoitzan, proposaturiko aldaketaren testu osoa eta proposamenaren behararen arrazoiak biltzen dituen txostena, eta baita aipaturiko agiriak eskatu edo etxean dohainik jasotzeko eskubidea badutela ere.

BI.- Aipaturiko akordioa eskritura publikoan idatzi eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan jasoko da.

HIRU.- Izenaz, egoitzaz edo baltzu-helburuz aldatzeko erabakia, elkartearen egoitzari dagokion lurralde historikoan zabalkunde handia duen egunkari batean argitaratuko da, erregistroan jaso baino lehen.

6. artikulua. Barne Araudia

BAT.- Barne Araudia, Batzar Nagusiak onetsitakoa, Estatutuak garatuko dituen eta gizarte, lan eta antolaketa esparruan barne harremanak definitu eta arautuko dituen agiria da, bereziki, bizikidetzara arauen inguruko arloei dagokienez, baita Estatutuak berariaz jaso ez dituen antolaketa, kudeaketa eta gizarte eta lan arloko alderdiei ere.

BI.- Barne Araudiak, Estutu hauek osatu eta garatuko ditu, baina ezingo ditu horiek hautsi.

HIRU.- Artezkaritza Kontseiluaren ekimenez egin beharko da Barne Araudia aldatzeko proposamena, baina bazkideek, langileek, gurasoek edo ikasleen lege-ordezkeriek Kontseilu horri horren inguruko proposamenak helarazi ahal izango dizkiote Barne Araudiak berak horretarako finkatu dituen moduei jarraituz.

II. ATALBURUA BAZKIDEEZ

1. KAPITULUA. BAZKIDE MOTAK

7. artikulua. Bazkide izan daitezkeenak

BAT.- Bazkide erabiltzaileak

Ondokoak izan daitezke bazkide erabiltzaileak: aita edo ama, ordezkari edo tutoreak edo guraso-ahala duen zein abegi-erregimenean Kooperatiba honetan seme-alaba, ondorengo, ordezkaturako edo tutoretzapekoak dituztenak.

Bazkide egoera batek izango du eta, beraz, jakinarazi beharko da nor den bazkide ondorio guztietarako.

Erabaki hori askatasun osoz har dezaten, eta erabakia bazkide izatearen ondoriozko betebeharrak eta eskubide guztiak ezagutzeko oinarritzeko, hala dagokionean, ordezkatutako edo tutoretzapeko seme-alaba inskribatu aurretik, Zuzendaritzak idatziz jakinarazi beharko die bikotekide biei bazkideek zein eskubide eta betebeharrak dituzten eta, zehazki, zer gertatuko litzatekeen banaketa, deuseztasun eta dibortzio kasuetan.

Banaketa, deuseztasun edo dibortzio kasuan:

- a) Bikotekide biek, adin txikikoaren guraso-ahala baldin badute, seme-alabarekin lotutako jakinarazpen eta informazio guztiak euren izenean jasotzen jarraituko dute, baita Kooperatibari buruzko edozein alderdiren berri ere, alderdi hori bazkide erabiltzaile egoerarekin halaberrez baldintzatuta ez badago.
- b) Bazkide erabiltzaileak bikotekide ohiari idatziz eskualda diezaioteko bazkide egoera; horrela bada, lehenengoari baja emango zaio eta bigarrenak ez du sartzeko kuota ordaindu beharko.
- c) Kooperatibako bazkide den horrek ordaindu beharko du, kasu guztietan, aldizkako kuota, seme-alaben guraso-ahalaren eta zaintzaren arauketaren ondoriozko edozein egoera alde batera utziz, baita banaketa edo dibortzio prozesuko ondasunen likidazioa alde batera utziz ere.

Bikotekide bat hiltzen bada, bazkide egoera alargunari edo adin txikikoaren tutore edo ordezkaritari emango zaio, baina ez du sartzeko kuota ordaindu beharko.

Erabiltzaileek Kooperatibako Zuzendaritzari aurretik finkatutako heriotza, banaketa edo dibortzio egoeren berri eman beharko diote, igorketa hori buru dadin.

BI.- Bazkide laguntzaileak

- a) Kooperatibaren baltzu-helburu osoa burutu ezin duten baina hori lortzen lagun dezaketen pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatuek bazkide izan daitezke eta bazkide laguntzaile izena hartuko dute. Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera eta, Estatutu hauetan jaso ez diren alderdietan, alde biek hitzartutakoaren arabera arautuko dira bazkide horien eskubideak eta betebeharrak.
- b) Bazkide erabiltzaile izateari utzi eta kooperatibako bazkide izaten jarraitu nahi dutenak bazkide laguntzaile izan daitezke, betiere sarrera kuota ordaindu ez bazaie.

c) Gainera, Kooperatibako bazkide erabiltzaile ez diren baina Kirol Elkarteko edo eta Kultur Elkarteko bazkide direnak eta kuota egunean ordainduta dutenak ere bazkide laguntzaile izan daitezke.

d) Bazkide laguntzaile egoera epe jakin baterako izan daiteke.

Artezkari-tza Kontseiluak erabakiko du bazkide laguntzaileak onartzea eta, gainera, onartutako pertsonen lankidetzaren baldintzak eta horiek dituzten berezko eskubideak eta betebeharrak finkatuko ditu. Hala ere, Estatutu hauetako hamalau eta hamabosgarren artikuluetan azaldutako betebeharrak eta eskubideak izango dituzte, baldin eta bateragarriak badira hitzartutako lankidetzarekin.

Batzar Nagusian eta Artezkari-tza Kontseiluan, bazkide laguntzaileen botoen batuketara ezin izango da izan elkarteko botoen ehuneko 2 baino gehiago.

2. KAPITULUA. BAZKIDEAK ONARTZEA

8. artikulua. Baldintzak

BAT.- Bazkide izateko honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Artezkari-tza Kontseiluari bazkide izateko onartzeko eskatzea, instantzia bidez, kooperatibako partaide izateko bete beharreko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen agiriekin batera.

b) Estatutu hauek, Barne Araudia eta *Olabide Ikastolaren* Hezkuntza Proiektua osatzen duten gainerako agiriak onartzea, baita kooperatibako kide izateagatik sortzen diren ekonomia- edo elkarte-betebeharrak ere.

9. artikulua. Onarpenaren inguruko erabakiak

BAT.- Artezkari-tza Kontseiluari dagokio bazkideak onartzeari buruzko erabakiak hartzea.

BI.- Artezkari-tza Kontseiluak onartzeko eskaera ebatziko du arrazoiak emanez, hirurogei eguneko epea baino lehen eskaria egin denetik.

Epe hori amaitutakoan ebazpenik adierazi ez badu, onartu dela ulertuko da.

HIRU.- Bazkideak onartzeko orduan bakar-bakarrik ezetz esan ahal izango da arrazoi justifikaturen bat badago eta arrazoi horiek ondokoetan oinarritu beharko dira:

a) Kooperatibaren zerbitzu-gaitasuna.

- b) Beste bazkide batzuk onartzeak kooperatibaren antolaketa eta funtzionamendurako sor ditzakeen behar objektiboak.

LAU.- Bazkideak onartu edo baztertzeko ezin izango da elkartearen xedearekin arrazoi gabeko edo bidegabekoa den bereizkeriaz baliatu.

10. artikulua. Onarpenaren inguruko erabakiari aurka egitea

BAT.- Erabakia aurkakoa baldin bada, eskatzaileak errekurtsua jar dezake Kooperatibaren Batzar Nagusian 20 eguneko epean erabakia jakinarazten zaionetik.

Batzar Nagusiak egiten duen lehen bileran errekurtsua ebatzi beharko du isilpeko bozketa bidez, baina alde aurretik alde interesdunari entzun beharko zaio.

BI.- Onartzeko akordioari Batzar Nagusiaren aurrean aurka egin ahal izango zaio, erabakia jakinarazi eta hogeit eguneko epean, gutxienez bazkideen ehuneko hamarrek eskatzen badu. Bazkide egoeraren eskuraketa eten egingo da onarpenari errekurtsua jartzeko epea igaro arte edo, errekurtsua jarriz gero, Batzar Nagusiak hori ebatzi arte.

Batzarrak egiten duen lehen bileran errekurtsua ebatzi beharko du isilpeko bozketa bidez, baina derrigorrezkoa izango da alde aurretik alde interesdunari entzutea.

3. KAPITULUA. BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

11. artikulua. Elkarte eskubideen eta betebeharren hasiera

Elkarte eskubide eta betebeharrak eragina izango dute onartzeko erabakia irmo den unetik.

Erabaki horri aurka eginez gero, akordioa eten egingo da organo eskudunak erabaki arte.

12. artikulua. Ekonomia-erantzukizunak

BAT.- Bazkideek kooperatibaren eragiketa sozialetan duten ekonomia-erantzukizuna, harpideturiko kapital-ekarpenen zenbatekora mugatuko da.

BI.- Baja egiten duen bazkideak, itzuli behar zaizkion ekarpenen zenbatekoa finkatu ondoren, ez du inolako erantzukizunik izango bera irten aurretik kooperatibak egindako zorreatatik.

13. artikulua. Bazkideen betebeharrak

BAT.- Bazkideek ondoko betebeharrak dituzte:

- a) Batzar Nagusiaren eta deitzen dieten gainerako organoen bileretara joatea.
- b) Karguren baterako izendatu badute, hori onartzea, ez onartzeko arrazoi egokia dagoenean izan ezik.

- c) Bazkide izatearen ondoriozko betebeharrak ekonomikoki erantzutea, banaketa, deuseztapen edo dibortzioko prozesu judizialen ondorioz beste egoera batzuk ematen diren edo ez alde batera utzita..
- d) Kooperatibaren helburu osatzen duten jardueretan parte hartzea. Betebeharrak hauetatik administratzaileek aske utzi ahal izango dute bazkidea, bidezko arrazoirik dagoenean.
- e) Kooperatibaren barnean giro egokia eta errespetuzko bizikidetzak sortzen laguntzea.
- f) Kooperatibak duen elkarte-helburuarekin lehian dagoen jarduerarik ez burutzea, ezta burutzen dituztenekin lankidetzan aritzea, administratzaileek berariaz eta bidezko arrazoiak dagoenean horretarako baimena ematen duen kasuetan izan ezik.
- g) Kooperatibaren jardura eta datuak isilpean gordetzea, horiek zabaltzeak kooperatibaren elkarte-interesei kalte egin baldin badiezaieke.
- h) Bazkide erabiltzaileei dagokienez soilik, gutxienez bost urte jarraian betetzea kooperatiban, arrazoi justifikaturen bat dagoenean izan ezik.
- i) Legezko arauen, Estatutu hauen, Barne Araudiaren eta Kooperatibaren elkarte-organoei legez hartutako erabakien ondoriozko izan litezkeen betebeharrak guztiak betetzea.

BI.- Betebeharrak hauek, bazkide guztientzat berberak, lege eta estatutuzko arauen eta kooperatibako organoei balioz onarturiko akordioaren arabera beteko dira.

14. artikulua. Bazkideen eskubideak

BAT.- Bazkideek ondoko eskubideak dituzte:

- a) Kooperatibako organoetako karguetarako hautagaiak hautatzea edo horietarako hautatuak izatea.
- b) Batzar Nagusiaren eta kide diren gainontzeko organoetan hartuko diren akordio guztietan proposamenak egitea eta hitz eginez eta botoa emanez parte hartzea.

- c) Kooperatibako jardueretan eta zerbitzuetan parte hartzea inolako bazterketarik gabe.
- d) Euren eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar duten informazio eta dokumentazioa jasotzea.
- e) Bidezkoa bada, elkartearen kapitalean egindako ekarpenak eguneratzea eta itzultzea.
- f) Lege, Estatutuen, Barne Araudiaren eta Olabide Ikastolako Hezkuntza Proiektua osatzen duten gaineko agirien ondoriozko gainerakoak.

BI.- Elkarte eskubide hauek, bazkide guztientzat berberak, lege eta estatutuzko arauen eta Kooperatibako organoek balioz onarturiko akordioen arabera izango dira.

15. artikulua. Informazio eskubidea

BAT.- Bazkide erabiltzaileak informazioa jasotzeko eskubidez balia daitezke, legeek, Estatutuek, Barne Araudiak eta Batzar Nagusiaren erabakiek aurreikusitakoaren arabera; horietan guztietan, egoki iritzitako bideak jarri ahal izango dira bazkideen eskubide hau bideratzea erraztu eta gauzatzearren.

BI.- Bazkide guztiek ondoko eskubideak izango dituzte:

- a) Kooperatibaren Estatutuen, Barne Araudiaren eta Kooperatibaren gainerako agiri oinarrizko eta estrategikoen kopia eskatzea, baita horien guztien inguruan egiten diren aldaketen kopia ere; gainera, horiek noiz sartu diren indarrean jarri beharko du.
- b) Kooperatibako Bazkideen Erregistro Liburua eta Batzar Nagusiaren Akten Liburua aztertzea; eta, arrazoiak emanez hala eskatuz gero, Batzar Nagusiaren aktaren eta hark hartutako akordioen kopia egiaztatuta eskatzea; gainera, Bazkideen Erregistro Liburuan egin diren inskripzioen ziurtagiria eska dezakete.
- c) Administratzaileek hartutako erabakien kopia egiaztatuta eskatzea, erabakiok bazkideari eragiten badiote.
- d) Kooperatibak duen ekonomia-egoeraren berri jasotzea. Informazio hori administratzaileek eman beharko diote eskatu eta hilabete igaro baino lehen.

HIRU.- Edozein bazkidek kooperatibaren jardueren edo emaitzen berri izateko, beharrezko argibide edo txostenak eskatu ahal izango die administratzaileei idatziz. Informazio hori idatzizko eskaria egin eta hamabost egun igaro ondorengo Batzar Nagusiaren lehenengo bileran erantzun beharko zaio eta eskatutako eman beharko zaio eskaria egin duenari eta, edozein kasutan, eskaera egin eta bi hilabeteko epearen barruan.

LAU.- Batzar Nagusian, gai-zerrendarekin bat etorriz, Ekitaldiko kontuei edo beste edozein proposamen ekonomikori buruz eztabaidatu behar bada, bazkideek urteko kontuen, emaitzak aplikatzeko proposamenaren, kanpoko ikuskaritzaren, kudeaketa planaren eta, halakorik balego, Zaintza Batzordeak edo kontuen kanpo-ikuskaritzak egindako kudeaketa txostenaren

berri ematen duten agiriak Kooperatibaren egoitzan izango dituzte aztergai, bazkideek deialdi epean aztertu ahal izan ditzaten.

Epe horretan, eta Batzar Nagusia egin baino bost egun lehenago gutxienez, bazkideek azalpen eta argibideak eskatu ahal izango dituzte idatziz aipaturiko dokumentazio ekonomikoari buruz, erantzuna Batzarrean bertan jaso ahal izateko.

BOST.- Aurreko bat atalean ezarritako eskubideaz gain, elkarteko boto guztien ehuneko hamar gutxienez ordezkaten duten bazkideek beharrezko iruditzen zaien informazioa eskatu ahal izango dute idatziz noiznahi. Administratzaileek eskatu zaien informazioa idatziz eman beharko dute eskatu zaienetik hogeita hamar egun igaro baino lehen.

SEI.- Dena den, administratzaileek, hiru hilean behin gutxienez, eta betiere kooperatibaren jarduera oporregatik etenda dagoenean izan ezik, bazkideei edo hauen organo ordezkariak Kooperatibaren aldagai sozio-ekonomiko nagusien berri eman beharko diete, egokiena iruditzen zaien bidez baliatuta gelako ordezkarien bileran ere egin dezakete hori.

ZAZPI.- Eskaria ausarkeriaz edo oztopatzeko asmoz egina denean bakarrik ukatu ahal izango dute informazioa administratzaileek, betiere arrazoiak emanez; baita informazio hori emateak kooperatibaren bidezko interesak arriskuan jartzen baditu ere. Baina salbuespen hau ez da egokia izango ukatutako informazio hori Batzar nagusiaren ekitaldian eman behar bada eta informatzeko eskaera bertaratutako eta ordezkaturako botoen erdiekin baino gehiagorekin onartzen bada eta, gainerako kasuetan, Batzarrak hala erabakitzen badu informazioa eskatu duten bazkideek jarritako errekurtsoren ondorioz.

Informazio-ukatzeko horri aurka egiteko, Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legeak, abenduaren 20koak, 51. artikuluan eta Prozedura Zibileko Legeak 256. artikuluan ezartzen duten prozeduraren arabera jokatu behar da.

Arbitrariotasuna eta kalteak eragozteko, eskaturiko datu guztiak Artezkaritza Kontseiluko lehendakariaren edo idazkariaren aurrean emango dira kooperatibaren egoitza sozialean.

ZORTZI. Oro har, honako berme hauek ezarri dira bazkideen informazio-eskubidea errespetatzeko, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 24. eta 25. artikuluetan jasotakoaren arabera:

- Kontseilu Errektorea da bazkideen informazio-eskubidea bermatzeko eskumeneko organoa.
- Kontseilu Errektoreak artikuluko honetako Bosgarren idatz-zatian aurreikusitako kasuetan soilik ukatu ahal izango du informazioa, arrazoiak emanda, eta idatz-zati horretan jasotako salbuespenarekin.
- Bazkideak lortutako informazioa erabiltzeko izango dituen muga bakarrak Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legean, oro har aplikatu beharreko beste arau batzuetan eta estatutu hauetan adierazitakoak izango dira.
- Kooperatibak bazkideekiko harremanetan erabiltzen dituen formatu, programa edo lengoia informatikoei buruzko informazioa eskatu ahal izango da.
- Eskatutako informazioa formatu elektronikoa bidali ahal izango da.
- Eskatzeko erabilitako Euskadiko hizkuntza ofizial berean bidali beharko da informazioa, eta eskatzaileak berariaz hala eskatzen badu.

4. KAPITULUA. BAZKIDE IZATEARI UZTEA

16. artikulua. Bazkideak borondatez bazkide izateari uztea

BAT.- Bazkideak nahi duenean utzi ahal izango du kooperatiba bere borondatez; horretarako, bi hilabete aurretik administratzaileei idatziz jakinarazi beharko die, hori ez egiteko ezinbesteko arrazoiak dituenean izan ezik.

BI.- Artezkaritza-kontseiluari dagokio baja bidezkotzat edo bidegabetzat kalifikatzea. Gehienez ere hiru hilabeteko epearen barruan formalizatu behar da kalifikazioa, artikuluko honetako 1. atalean aipatzen den aurreabisua jakinarazten denetik kontatzen hasita. Kalifikazioa idatziz jakinaraziko zaio bazkide interesdunari. Administratzaileek jakinarazpenik egin gabe igarotzen bada epe hori, bidezkotzat joko da baja.

HIRU.- Aurrez jakinarazteko epea ez betetzea justifikatu gabeko bajatzat hartuko da, kooperatibako administratzaileek, kasuan kasuko gorabeherak kontuan izanda, bestelakorik erabakitzen ez badute behintzat; edonola ere, eska dakioke bazkideari, derrigorrezkotzat dituen kooperatibako jarduera eta zerbitzuak betetzea, baita dagokion kalte-ordaina egitea ere.

Bazkide erabiltzaileei dagokienez, baja gertatuko balitz kooperatiban bost urtez egon baino lehenago, eta arrazoituta ez balego, Elkartearen Estatutu hauetako 47. artikuluko bi atalean aurreikusten dena ezar liteke.

LAU.- Borondatezko baja arrazoitu gabetzat joko da bazkideak Kooperatibaren jarduerarekin lehian dagoen zerbaitetan aritu nahi badu.

BOST.- Kooperatiba banatu edo beste batekin bateratzean, mota aldatzen bada, elkartearen helburuan funtsezko aldaketa dagoenean, edo elkartean kapital ekarpen berriak egin behar direnean, bazkidearen baja arrazoitutzat hartuko da, baldin eta akordio horren aurkako botoa eman badu edota, akordioa hartu zeneko Batzar Nagusian bera ez izan arren, berorrekiko desadostasuna azaldu badu.

17. artikulua. Bazkideak derrigorrez bazkide izateari uztea

BAT.- Derrigorrez baja hartu beharko dute Legearen edo Estatutuen arabera bazkide izateko bete behar diren baldintzaren bat galdu duten bazkideek.

BI.- Administratzaileek erabakiko dute, ofizioz, kaltetuari entzun eta gero, derrigorrezko baja, beste edozein bazkidek hala eskatuz gero edo bazkide izateari utzi beharko duenak berak hala eskatuz gero.

HIRU.- Artezkaritza Kontseiluak derrigorrezko bajari buruz hartzen duen erabakia eraginkorra izango da Batzar Nagusiaren berrespenaren jakinarazpena egiten denetik edo horren aurrean errekurtsioa jartzeko epea amaitzen denetik. Baina, bazkidearen eskubide edo betebeharrak guztiak edo batzuk kautelaz berehala etetea modu arrazoituan erabaki daiteke, derrigorrezko

bajaren erabakia eraginkor izan arte, betiere Kooperatibaren funtzionamendu onerako egokia bada edo Kooperatiban kalte larria izan badezake. Bazkideak Batzar Nagusian bozkatzeko eskubidea izango du erabakia eraginkor izan arte.

LAU.- Bazkide izateko baldintzak galtzen direnean derrigorrezko baja arrazoizkotzat hartuko da, baina ez baldintza horrek kooperatibarekiko betebeharrak bazkideak bete nahi ez dituelako edo derrigorrezko bajaz behar ez bezala baliatu nahi delako galdu badira, eta halakotzat hartuko da, kasu guztietan, bazkide erabiltzaileek lan-arrazoiak direla-eta etxebizitza beste udalerrri batean finkatzen badute.

17. artikulua bigarren atalean xedatutakoa arrazoitu gabeko derrigorrezko bajari aplikatuko zaio.

BOST.- Bazkideren bat bere borondatezko bajaren kalifikazio edo ondorioei buruz administratzaileek erabakitakoarekin ados ez badago, errekurtsua jartzeko aukera izango du Batzar Nagusiaren aurrean, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legeak 28. artikuluan ezarriarekin bat etorritik.

III. ATALBURUA. ELKARTEAREN DIZIPLINA ARAUAK

18. artikulua. Bazkideen hutsegite motak

BAT.- Euskadiko Kooperatiben Legearen 29. artikulua, 1. atalean xedatutakoaren arabera, kooperatiban giro sozial egoki eta arduratsua ziurtatzeko, eta Kooperatibaren ekonomia-kudeaketa eta bazkideen arteko elkarbizitza inola ere ez oztopatzearen, jarraian dauden artikuluetan elkartearen diziiplina-araubidea ezarriko da.

Bazkideek soilik zigorra jaso dezakete Estatutuetan edo, arinei dagokienez, Barne Araudian alde zuzenetik finkatutako hutsegiteengatik.

BI.- Bazkideen hutsegiteak, beren garrantzi edo asmoaren arabera, arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

a) Ondokoak hutsegite arinak izango dira:

- Kooperatibaren ordena eta garapen onerako Estatutuetan, Barne Araudian eta Kooperatibaren gainontzeko agirietan ezarritako arauak ez betetzea.
- Estatutuen eta arauzko aginduak eta funtzionamendu-arauak ez betetzea, behin bada ere.
- Berariazko deialdia jaso arren, ez joatea, bidezko arrazoirik gabe, elkartearen ekitaldietara eta, zehazki, Batzar Nagusietara.
- Zabarkeria edo arduragabekeria barkaezinaz jokatzea, kooperatibaren interesei kalterik egiten ez badio.

- Maltzurkeriaz zerbait egin edo ez egitea, bazkide bakoitzari dagozkion zeregin eta arduren bide onari modu arinean oztopoak jarritz.

b) Ondokoak elkarte-hutsegite larriak izango dira:

- Hutsegite arinen bat behin baino gehiagotan egitea urtebete baino gutxiagoko epean.
- Zabarkeria edo arduragabekeria barkaezinaz jokatzea, kooperatibaren interesei kalterik egiten badio.
- Elkartearen kargurako aukeratua izan ondoren, ez onartzea, dimititzea, edo kargu horiek arduraz ez betetzea, horretarako bidezko arrazoirik gabe administratzaileen ustez.
- Estatutu hauetan ezarritako ekonomia-betebeharrak ez betetzea, Artezkari-tza Kontseiluak alde aurretik ohartarazita.

c) Ondokoak hutsegite oso larriak izango dira:

- Hutsegite larriak bat behin baino gehiagotan egitea urtebete baino gutxiagoko epean.
- Nabarmenki ez betetzea organo eskudunek balioz onartutako erabakiak.
- Beren izaeragatik, Kooperatibaren interes material edo ospe sozialari kalte nabarmena egin diezaioketen egintzak edo jarduerak burutzea.
- Administratzaileei dagozkien egitekoak nork beretzat hartzea.
- Korrespondentziaren edo kooperatibaren ezkutuko dokumentuen isilekotasuna haustea, edota derrigorrez isilean gorde beharreko datuak beste batzuei erakustea.
- 14. artikulua aurreikusitako betebeharrak behin eta berriz ez betetzea.
- Kooperatibaren Eginbideari, Ikuspegiari, Baloreei eta Printzipioei sistematikoki aurka egitea.
- Kooperatibaren eta bazkidearen irudia edo ospea gutxiesten duten jarduerak nabarmen eta maiz egitea.
- Maltzurkeriaz zerbait egin edo ez egitea, bazkide bakoitzari dagozkion zeregin eta arduren bide onari modu oso larrian oztopoak jarritz.
- Tratu txarrak ematea, bai hitzez eta bai egitez ere administratzaileei, beste bazkideei edo kooperatibako lankideei Elkartearen Organoek bilerak egiten dituztenean edo elkartearen helburua garatzeko beharrezko diren jarduerak edo lanak burutzean.

19. artikulua. Elkarte-hutsegiteagatiko zehapenak

BAT.- Hutsegite arinengatik:

- Idatziz ohartaraztea.
- Boto eskubidea kentzea urtebete arteko epean.

BI.- Hutsegite larriengatik:

- Idatziz ohartaraztea eta, administrazioen ustez egokia bada, ohartarazpen horren berri eman dezakete.
- Boto eskubidea kentzea bi urte arteko epean.
- Kooperatibako administratzaile edo edozein organo sozialetarako aukeratua izateko desgaitzea.

HIRU.- Hutsegite oso larriengatik:

- Elkarre-eskubide batzuk edo guztiak kentzea hiru urte arteko eperako.
- Kanporatzea.

20. artikulua. Zehatzeko prozedura

BAT.- Artezkaritza Kontseiluak du hutsegiteengatik zigorrak jartzeko gaitasuna eta gaitasun hori ezin dio beste bati eskuordetu. Horretarako, aldez aurretik Instrukzio-komiteak dagokion espedienteari hasiera eman beharko dio. Hutsegiteen espedienteak idatziz beteko dira, eta Kooperatibaren artxiboetan hori jasota geldituko da. Horietara heltzeko aukera murriztua izango da.

BI.- Artezkaritza Kontseiluak aldez aurretik interesduna entzun dutela zainduko du.

HIRU.- Artezkaritza Kontseiluak bere kideen artean hiru aukeratuko ditu Instrukzio-komitea osatzeko. Instrukzio-komiteak "kargu-orria" egingo du eta horretan arau-haustea zer behin-behingo kalifikazio duen eta zer zehapen proposatzen den jarriko du; gainera, zuhurtziaz zenbait neurri ezar ditzake eta bazkide erruztatuari idatziz jakinarazi beharko dio. Bazkide horrek "deskargu idazkia" (alegazioak) aurkez dezake Artezkaritza Kontseiluan 10 eguneko epean jakinarazpena egiten denetik. Epe hori amaituta, Artezkaritza Kontseiluak ebazpena egingo du kalifikazioa eta behin betiko zehapena zein den esanez.

Artezkaritza Kontseiluak hutsegite larri edo oso larriengatik ematen duen behin betiko ebazpenaren aurrean Batzar Nagusian errekurtsioa jar daiteke 30 eguneko epean horren jakinarazpena egiten denetik.

LAU.- Artezkaritza Kontseiluak emandako zehapen erabakiari aurka egin ahal izango zio Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 51. artikuluan xedatutakoa prozesu-tramitearen bitartez.

Batzar Nagusiaren berrespenari aurka egin ahal izango zio, kasua balitz, hilabeteko epean aipatutako Legearen 41. artikuluan xedatutako prozesu-tramitearen jakinarazpena egiten denetik.

BOST.- Hutsegite arinak hilabetera geratuko dira indarrrik gabe, larriak bi hilabetera eta oso larriak hiru hilabetera.

Arau-hausteen preskripzio-epea arau-haustea egin den egunetik hasiko da kontatzen.

Arau-hauste jarraituak edo iraunkorrak badira, jokabide arau-hauslea amaitzen den unetik hasiko da epea kontatzean. Zehapen-izaerako prozedura bat hasteak, interesduna haren jakitun dela, etengo du preskripzioa, eta berriz ekingo litzaioke preskripzio-epeari zehapen-espeditentea geldituta balego, ustezko erantzuleari ezin egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, ebazpenik eman edo jakinarazi gabe, lau hilabetean baino gehiagoan.

SEI.- Zigor guztiak bete egin beharko dira aurka egiteko epea bukatu den egunaren (eta halakorik jarri ez bada) edo behin betiko erabakia hartu den egunaren biharamunetik.

21. artikulua. Kaleratzea

BAT.- Bazkide bat kanporatzea estatutuetan jasotako hutsegite oso larriagatik baino ezin izango dute erabaki administratzaileek, horretarako izapidetutako espeditentearen bidez eta kaltetuarekin hitz egin ondoren.

BI.- Bazkideak kanporatze-akordioaren aurkako errekurtsua jarri ahal izango dio Batzar Nagusiari, jakinarazpena jaso eta hogeita hamar egun igaro baino lehen.

Batzar Nagusiari jarritako errekurtsua, izango duen lehenengo bilerako gai-zerrendan jaso beharko da eta isilpeko bozketa bidez erabakiko da, aldez aurretik kaltetuari entzun ondoren.

HIRU.- Kanporatzeko erabakia eraginkorra izango da Batzar Nagusiaren berrespenaren jakinarazpena egiten denetik edo horren aurrean errekurtsua jartzeko epea amaitzen denetik.

LAU.- Batzar Nagusiak berretsitako kaleratzeko erabakiari aurka egiteko, jakinarazpena jasotzen denetik bi hilabete epea izango da eta Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 41. artikuluan aipatzen den auzibidea jarraitu beharko da.

IV. ATALBURUA. KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA

22. artikulua. Elkartearen Organoak

Honako elkarte-organo hauek osatuko dute Kooperatiba:

- Batzar Nagusia.
- Artezkaritza Kontseilua.
- Zaintza Batzordea.

Artezkari-tza Kontseiluan eta Zaintza Batzordean gizonen eta emakumeen ordezkari-tza orekatua izan dadin saiaturko da, eta ezin badu helburu hori lortu, oreka horretara iristeko neurriak bultzatuko dira.

23. artikulua. Batzar Nagusiaren eskumenak

BAT.- Batzar Nagusia, bazkide guztiek osatua, elkar-tearen borondatea adierazten duen organo gorena da, indarreko legediak egozten dizkion gai guztietan.

Batzar Nagusiak hartutako erabakiak bazkide guztiek bete behar dituzte.

BI.- Jarraian datozen arloetan akordioak hartzea Batzar Nagusiaren ardura izango da soil-soilik:

- a) Artezkari-tza Kontseiluko kideak, Zaintza Batzordeko kideak eta kitatzaileak izendatzea eta ezeztatzea isilpeko boto bidez.
- b) Kontu ikuskatzaileak izendatzea eta ezeztatzea (bakar-bakarrik bidezko arrazoirik badago).
- c) Elkar-tearen kudeaketa aztertu, urteko kontuak onartu eta soberakinen banaketa zein galeren egozpena onartzea.
- d) Urteko Kudeaketa Plana eta aurreko ekitaldiko deskarguak onestea.
- e) Derrigorrezko ekarpen berriak adostea eta, kasua balitz, kapitalean egindako ekarpenen interesak eta sarrerako edo aldikako kuotak zenbatekoak izango diren finkatzea.
- f) Gizartearen Estatutuak eta Barne Araudia onartzea eta aldatzea.
- g) Bigarren mailako kooperatibak, kooperatiba-korporazioak eta antzeko erakundeak eratzea, baita horiekiko atxikidurak eta banaketak ere.
- h) Kooperatiba beste batzuekin bateratzea, banatzea, eraldatzea edo desegitea erabakitzea.
- i) Kooperatibaren ekonomia, antolaketa eta egitekoen egituretan oinarrizko aldaketak eragin ditzakeen edozein erabaki hartzea.
- j) Legeak hala ezartzen duen gainerakoetan, akordioak hartzea.

HIRU.- Batzar Nagusiak Kooperatibarentzat interesgarri diren gai guztiez eztabaidatu ahal izango du, baina behartze-indarreko akordioak hartu ahal izango ditu bakar-bakarrik legearen eta estatutuen arabera elkar-teko beste organo baten aginpidekoak ez diren arloetan.

LAU.- Artikulu honen edo lege-arauen arabera Batzar Nagusiari dagozkion eskumenak ezin dira eskuordetu, kooperatiba-integratzioko prozesuetarako artikulu honen 2.f) atalean ezarritakoetan salbu.

24. artikulua. Batzar Nagusirako deialdia

BAT.- Batzar Nagusirako deia, ohikorakoa edo ez-ohikorakoa, administratzaileek egingo dute.

BI.- Ohiko Batzar Nagusia urtean behin egingo da, elkartearen ekitaldia itxi eta hurrengo sei hilabeteen, elkartearen kudeaketa aztertzeko, eta, hala badagokio, urteko kontuak onartzeko eta soberakinak nola banatu eta galerak nola egotzi erabakitzeko.

Gai-zerrendan Batzar Nagusiaren eskumeneko beste edozein gai sartu ahal izango da.

HIRU.- Epe hori igaro eta batzarrik egingo ez balitz, edozein bazkidek, notario bidez, edo beste bide fede-emaileren bat erabiliz, deia egin dezatela eskatu ahal izango die administratzaileei. Eskatera jasotzen duten egunetik hamabost egun igaro eta deirik egingo ez balute, bazkideak batzarrerako deia egin dezala eskatu ahal izango dio elkartearen egoitza dagoen lekuko Lehen Auzialdiko epaileari. Honek deia egin eta batzarreko burua nor izango den erabakiko du. Batzar Nagusi hau, epez kanpo deitutakoa izanda ere, ohikoa izango da.

LAU.- Beste Batzar Nagusiek, aurreko zenbakian aipaturikoez bestelakoek, ez-ohizkoak izango dira. Ez-ohiko Batzar Nagusia edozein unetan bilduko da, administratzaileek beren aldetik eskatuta, Zaintza Batzordeak eskatuta edo boto guztien ehuneko hogeitaz gutxienez ordezkatzen duten bazkideek eskatuta. Horretarako, administratzaileei agiri sinesgarri baten bidez egin beharko zaie eskaria eta bertan eztabaidarako gaien eta proposamenen gai-zerrenda gehitu beharko da. Eskaria jasotzen denetik hogeita hamar egun igarota Batzar Nagusia biltzeko deirik egiten ez bada, epailearen bidez egin ahal izango da eskaria, aurreko zenbakian erabakitako moduan.

Ez-ohiko Batzar Nagusian gai-zerrendan sartutako gai guztiak aztertu ahal izango dira, baita Ohiko Batzarrari dagozkionak ere, hau bere garaian egin ez balitz.

BOST.- Batzar Nagusirako deialdia, elkartearen egoitzan jendaurrean modu adierazgarrian jarritako iragarkiaren bidez egingo da eta, gainera, Kooperatibak jarduerak burutzeko dituen ikastetxeetako iragarki-taula fisiko zein elektronikoetan ere jarriko da eta, kasua balitz, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 35.5 artikuluan aurreikusi den bezala.

Kooperatibak bostehun bazkide baino gehiago baldin baditu, sozietatearen egoitzaren lurralde historikoan hedapen handia duen egunkari batean –idatzizkoa edo digitala– ere iragarri behar da deialdia

Kooperatibak webgune korporatibo bat baldin badu, sozietatearen webgunean iragarri ahalko du batzar orokorrerako deialdia, betiere batzar orokorrak hartu badu webgunea sortzeko erabakia eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan kooperatibarentzat irekitako orrian jasota badago erabaki hori. Horrela bada, ez da aplikatu behar aurreko paragrafoan ezarritako betebeharra.

Deialdiak adierazi beharko ditu, gutxienez, lehenengo, bigarren eta hirugarren deialdiko eguna, ordua eta tokia (ETA horien artean behintzat ordu erdiko tartearen egon behar du), eta gai-zerrenda behar bezala zehaztua izango du.

Deialdiaren argitalpena elkartearen egoitzan eta iragarki-tauletan, bilera egin baino gutxienez hamar egun eta gehienez hirurogei egun lehenago egingo da.

SEI.- Boto guztien %10 baino gehiago ordezkatzeko duten bazkideek, deialdia egin eta hurrengo bost egunak igaro baino lehen, gai-zerrendan gai bat edo gehiago sartzeko eskatu ahal izango dute, administratzaileei zuzendutako idatzi baten bidez. Administratzaileek gai horiek sartu eta gai-zerrenda berria gutxienez legeak eskatzen duen bezala argitaratu beharko dute, Bilera izan baino lau egun lehenago gutxienez, baina bilera hori ezingo da inola ere atzeratu.

ZAZPI.- Atal honetako aurreko zenbakietan erabakitakoaren kaltetan gabe, deialdi gabeko batzarra osatu ahal izango da, bazkide guztiak bilduta edo ordezkaturik egonik, aho batez Batzar Nagusi Unibertsala eratzea erabakitzen baldin badute. Denek onartu eta izenpetu beharko lukete gai-zerrenda eta bertaratutakoena, baina gero ez lukete guztiak bertan geratu beharrik izango.

25. artikulua. Batzar Nagusiaren jarduerak

BAT.- Batzar Nagusia elkartearen egoitzako udalerrian egingo da, edo Kontseilu Errektoreak izendatutako beste edozein lekutan, betiere arrazoi justifikatua badago.

BI.- Batzar Nagusia behar bezala osatutzat joko da, lehenengo deialdian, boto gehienak bertan edo ordezkaturik badaude, eta, bigarren deialdian, botoen ehuneko hamar, edo, bestela, ehun boto bertan edo ordezkaturik badaude.

Era berean, hirugarren deialdia legez baliokoa izango da bertan dagoen bazkide kopurua edozein dela ere.

HIRU.- Batzar Nagusirako deialdia egiten den egunean bazkide diren guztiak dute bertaratzeko eskubidea, eskubide hori etenda dagoenean izan ezik. Bazkidea ez bada bertaratzeko, beste bazkide batzuek ordezkatu ahal izango dute, idatziz, Batzar Nagusi bakoitzerako bereziki.

Bazkideek, halaber, ezkontideak, izatezko bikotekideak, jarduteko gaitasun osoa duten aurreko eta ondorengo ahaideek edo semearen edo alabaren aitak edo amak ordezkari ditzakete Batzar Nagusian, nahiz eta ezkontide edo izatezko bikotekide izateari utzi.

Batzar Unibertsala denean, ordezkariak egiaztatuzko idazkiak aurreikusitako gai-zerrenda jaso beharko du.

Bazkide batek ere ezin izango du bi ordezkariak baino gehiago izan, berea ez ezik. Ordezkariak ezeztatu egin daiteke, eta ordezkariaren Batzar Nagusira bertaratzeko errebozkazio-balioa izango du. Batzarreko lehendakariak erabakiko du ordezkari zaidazkien baliozkotasuna eta nahikotasuna.

LAU.- Gainera, Batzar Nagusia, osorik edo zati batean, bide telematikoen bidez edo teknologiak ahalbidetzen duen antzeko beste edozein sistemaren bidez egin ahal izango da. Administrazio-

organoak ezarriko du bertaratze ez-presentziala gauzatzeko sistema, eta honako hauek bermatuko ditu:

- a) Deialdia jaso behar duten pertsona guztiek sartzeko aukera izatea.
- b) Bazkidearen nortasuna egiaztatzea.
- c) Boto-eskubidea erabiltzea eta, aurreikusita dagoenean, haren konfidentzialtasuna.
- d) Komunikazioa irudiaren eta soinuaren noranzko biko eta aldiberekoa izatea, bai eta ikusmen-, entzumen- eta ahozko elkarrekintza ere.
- e) Hala adierazten duten bazkideek modu presentzialean parte hartu ahal izatea batzarrean. Batzarreko idazkariak beren-beregi jasoko ditu batzarreko aktan, bazkide bakoitzaren batzarrera sartzeko sistema, bere nortasuna eta bere borondatea adierazteko erabilitako bitartekoa, bai eta erabakiak balioz hartzeko eskatzen diren gainerako baldintzak ere.

BOST.- Batzar Nagusiko burua Artekariak Kontseiluko lehendakaria izango da, eta, horren ezean, lehendakariordea edo, hura ez badago, Batzar Nagusiak berak aukeratutako bazkideak. Lehendakariari dagokio eztabaidak zuzentzea, bere erantzukizunpean zaintzea desbideratzerik ez egotea edo gai-zerrendan sartzen ez diren gaiak erabakitzea, salbu eta legeak berariaz baimentzen dituenak, Batzarraren ordenari eustea eta legezko formalitateak betetzen direla zaintzea. Kontseilu Errektoreko kidea izango da idazkaria, edo, bestela, Batzar Nagusiak izendatzen duen bazkidea.

SEI.- Deusezak izango dira gai-zerrendan jasota ez dauden gaiei buruzko erabakiak, salbu eta batzar berrirako deialdia egitea, Kontseilu Errektoreko kideei erantzukizuna eskatzea eta kargutik kentzea. Hala ere, horretarako txanda iristen denean, bazkide guztiek ahoz egin ahal izango dituzte proposamen edo iradokizun zehatzak, baina Batzar Nagusiaren erabakia eskatzen badute, gutxienez boto sozialen % 20k babestu beharko dituzte, eta, ondorioz, batzar berri baterako deialdia egingo da

ZAZPI.- Bozketa nahitaez isilpekoa izango da Legean eta Estatutu hauetan aurreikusitako kasuetan, eta bertaratutako eta ordezkaturako bazkideen gutxienez ehuneko hamarrek eskatzen dutenean. Gainerako kasuetan, lehendakariak erabakiko du.

ZORTZI.- Kontseilu Errektorea osatzen dutenek Batzar Nagusietara joan beharko dute, eta bazkide ez diren zuzendari, kudeatzaile eta teknikariek, hitzarekin baina botorik gabe, Kontseilu Errektoreak berariaz deitzen baditu.

Batzar Nagusiak beste edozein pertsona bertaratzeko baimena eman ahal izango du.

BEDERATZI.- Idazkariak bilkuraren akta idatziko du, eta honako eduki hauek adieraziko ditu:

- a) Non eta noiz egingo den.
- b) Deialdia egiteko eguna eta modua, batzar unibertsala denean izan ezik.

- c) Deialdiaren testu osoa.
- d) Zenbat bazkide biltzen diren, pertsonalki zenbat bertaratzen diren eta ordezkari bakoitzeko zenbat.
- e) Batzarra lehenengo, bigarren edo hirugarren deialdian egiten bada.
- f) Eztabaidatutako gaien laburpena.
- g) Aktan jasota uzteko eskatu diren esku-hartzeak.
- h) Hartutako erabakien edukia.
- i) Bozketen emaitza, erabaki bakoitzaren gehiengoak adierazita. Aurka bozkatu duenak eskatzen duen guztietan, erabakien aurka dagoela agerraraziko da.
- j) Bilera amaitzean akta onartzea.

Akta Batzarrak berak onartu ahal izango du, Batzarra egin ondoren, edo, bestela, Lehendakariak eta Batzarrean izendatutako bi bazkidek hamabost eguneko epean. Horiek idazkariak gain sinatuko dute.

Batzarrera joaten den edonork aktaren edo erabakien testu osoaren ziurtagiriak eskatzeko eskubidea izango du. Idazkariak emango ditu egiaztatuz horiek ematen diren egunean, lehendakariaren oniritziarekin.

HAMAR.- Erabakiak hartzen diren unetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Inskriba daitezkeen erabakiak Kooperatiben Erregistroan aurkeztu beharko dira, akta onartu eta hogeita hamar eguneko epean.

26. artikulua. Boto-eskubidea

BAT.- Bazkideek boto bana izango dute, 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eskubide hori kentzen zaienean izan ezik.

BI.- Bazkideak ezingo du boto-eskubidea erabili interes-gatazka sortzen den kasu hauetan:

- a) Hartu beharreko erabakia zuzenean eta soil-soilik berari dagokionean.
- b) Kooperatibak duen erantzukizun-akzioaren baten subjektu denean.

27. artikulua. Gehiengoak

BAT.- Batzar Nagusiaren erabakiak hartzeko baliozko botoen erdiak baino gehiago behar izango dira. Horretarako ez dira kontuan hartuko boto zuriak eta abstentzioak.

Barne Araudia eta Ikastolaren gainerako oinarrizko agiriak onesteko, baita horien aldaketak onesteko ere, gehiengo soila beharko da.

BI.- Kooperatiba eraldatu, bateratu, banatu edo desegin behar den erabakitzeko, batzarrean daudenen edo ordezkaturakoen botoen bi herenak behar izango dira, bertaratu eta ordezkaturakoen boto-kopurua kooperatibako boto guztien ehuneko hirurogeita hamabost baino txikiagoa baldin bada.

28. artikulua. Batzar Nagusiak hartutako erabakiei aurka egitea

BAT.- Batzar Nagusiaren erabakiak legearen nahiz estatutuen aurkakoak badira edo bazkide baten, batzuen nahiz beste pertsona batzuen mesedetan, kooperatibaren xedeen aurkakoak baldin badira, aurkatu egin ahal izango dira.

Aurkatzeko epeak erabakia hartzen den egunean hasiko dira edo, erabakiak inskribatu beharrekoak badira, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatzen diren egunean.

BI.- Aurkaratze-akzioa honako hauek egikaritu ahal izango dute: bazkideek, administratzaileek, zaintza-batzordeko kideek edo interes legitimoa duen bazkide ez den edozein hirugarrenek; aurkaratze-akzioa egikaritzeko aukera urtebetean iraungiko da, salbu eta erabaki horien karia edo edukia ordena publikoaren aurkakoak direnean.

HIRU.- Oro har, Kapital Sozietateen Legearen arabera ezarriko da aurkaratze-prozedura. Salbuespenez, baina, demanda-idatzian aurkaratutako erabakia eten dadila eskatzeko, exijituko da zaintza-batzordeak berak edo ondoren azaltzen den ordezkariak duten pertsonen eskatzea: bazkideen % 10 ordezkariak duten pertsonen, kooperatibak 50 bazkide baino gehiago badu; bazkideen % 15 ordezkariak dutenek, kooperatibak 10-50 bazkide baditu, eta bazkideen % 20 ordezkariak dutenek, kooperatibak 10 bazkide baino gutxiago badu.

LAU.- Aurka jotzea kontuan hartu duen epaiak bazkide guztiengan izango du eragina, baina ez die eragingo aurkatutako erabakiaren ondorioz eta asmo txarrik gabe beste batzuek lortutako eskubideei. Aurka jotako erabakia Euskadiko Kooperatiben Erregistroan jasota balego, epaiak erabakiko du indarrik gabe uztea.

29. artikulua. Artezkaritza Kontseilua. Izaera eta eskumenak

BAT.- Artezkaritza Kontseilua administratzaileek osatzen duten gobernu organoa da, eta horiei dagokie soilik Kooperatiba ordezkatu eta kudeatzea; Artezkaritza Kontseiluak, beraz, horretarako ahalmen guztiak izango ditu, Legeak edo Estatutuek beste elkarte-organoa batzuei berariaz egozten dizkienak izan ezik.

BI.- Artezkaritza Kontseiluari honako ahalmen berezi hauek dagozkie:

- a) Bazkideen onarpen eta bajari buruz erabakitzea, Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera betiere.
- b) Erantzukizun osoz Kooperatibaren ordezkari izatea edozelako egintza eta kontratutan.

- c) Ardurak izango dituzten karguak izendatzea, baita horiek kargutik kentzea eta horien ahalmenak, betebeharrak eta ordainsariak finkatzea ere eta, gainera, kasua balitz, horien aurkako erantzukizun ekintzak egikaritu lituzke.
- d) Langileak kontratatzea, plantillak eratzea eta eginbeharrak, esleipenak, fidantzak, aurrerakinak eta haborokinak erabakitzea.
- e) Kooperatibaren jarduera antolatu, gidatu eta ikuskatzea, eta Batzar Nagusiari Kooperatibaren Barne Araudiaren eta gainerako oinarrizko agirien onarpena eta horien guztien aldaketen onarpena proposatzea.
- f) Elkartearen helburua betetzeko beharrezko edo komenigarri izan litezkeen egintza eta kontratuak egitea, eta Estatutu hauek Kooperatibari baimentzen dizkioten negozio eta eragiketa-mota guztiak ebaztea.
- g) Kooperatibari komenigarri gerta lekizkiokeen kreditu- edo mailegu-eragiketak adostea.
- h) Erakunde publiko eta pribatuen aurrean abalak ematea, baita edozein titulu-mota erosi, saldu, harpidetu eta gordailatzea ere; tituluak izan daitezke zor publikoarenak, balore higigarri edo higiezinak, betiere zuzenbidean onartuak, eta egoki iruditzen zaion moduan eragin ditzake.
- i) Bono, Obligazio eta partaidetza bereziak jaulkitzeko eta horiekiko ekarpenak harpidetzeko beharrezko dena erabakitzea, Batzar Nagusiak hartutako akordioaren arabera.
- j) Funts erabilgarrien inbertsio zehatza finkatzea, baita Erreserba Funtsarenak eta Hezkuntza eta Kooperatiba-Sustapenerako Funtsarenak ere, betiere Batzar Nagusiaren erabakiak errespetatuz.
- k) Aurrekontuak egin eta gastuak baimentzea.
- l) Ekitaldiaren bukaeran Ohiko Batzar Nagusiari Urteko Kontuak aurkeztea eta Emaizten aplikazioa proposatzea, baita aurrekontuen proiektua eta edozein kuota-motarekiko aldaketak proposatzea ere. Halaber, amaitutako ekitaldiaren kudeaketa planaren emaitzak eta hurrengo ekitaldirako proposamena aurkeztuko ditu Batzarrak onets ditzan.
- m) Ohiko eta Ez-ohiko Batzar Nagusien deialdia egitea eta horietan hartutako erabakiak betearaztea.
- n) Epaitegi eta Auzitegi arrunt edo berezien eta Estatu, Lurralde-Administrazio Autonomo, Lurralde Historiko edo Udalerriko bulego, agintari, korporazio edo erakundeen aurrean Kooperatibari dagozkion eskubide edo akzioak egikaritzeko komenigarri iruditzen zaiona erabakitzea, baita errekurtsio arrunt eta apartekoak jartzeari buruz ere. Honetarako ordezkari, prokuradore edo letratuak izenda ditzake

Kooperatiba ordezkatu eta defendatzeko, eta pertsona hauei, behar den eran, kasuan kasuko ahalmenak emango dizkie adiskidetze, espediente, auzi, erreklamazio, errekurso edo bestelako jarduketatan eta edozein prozedura-egoeratan bat etorri edo bertan behera uzteko, prozedura geldiaraztea eskatzeko eta beharrezko izan litekeen guztirako, baita zabaltasun osoz judizialki hausteko ere.

- o) Elkarteko funts eta ondasunak erabili, erreklamatu, hartu eta kobratzea, partikularrengandik nahiz bulego publikoetatik, Kutxa Orokorrean gordailuak eratuz edo bertatik erretiratuz eta sozietate-interesentzat komeni den lekuan ezarriz. Erakunde nazional nahiz atzerrikoetan, baita Espainiako Bankuan ere, kontu korronteak irekitzea. Kooperatibarenak izanik korrespontsalen esku dauden funts eta ondasunez baliatzea. Kanbio-letrak libratu, endosatu, abalatu, onartu, ordaindu eta negoziatzea.
- p) Pertsona jakin batzuei ahalmenak ematea ondorio zehatzetarako edo elkartearen negozioaren zenbait adar zuzentzeko.
- q) Estatutu hauen, Barne Araudiaren eta Kooperatibaren oinarritzko gainerako agiriaren interpretazioari buruzko zalantzak argitzea eta hutsuneak betetzea, egindakoaren berri lehen Batzar Nagusiari emanez.
- r) Kontratazio irizpideak onestea; horiek barne-promoziorako irizpideak bilduko dituzte.
- s) Kooperatibaren langile-kontrataziorako proposamena guztiak, Zuzendaritzak egindakoak, ezagutu eta onestea.
- t) Estatutu hauetan berariaz emandakoak.

Artezkaritza Kontseiluaren eskumenen zerrenda hau adierazpenekoa da soil-soilik eta, beraz, ez dizkio mugatzen Kooperatibaren interesak gobernatu, gidatu eta administratzeko dituen atribuzio zabalak, Legeak Kooperatibako beste organo batzuen esku bereziki jarri gabeko guztian.

HIRU.- Artezkaritza Kontseilua Batzorde Betearazle bat izenda dezake bere baitan eta horrek kontseilari ordezkari bat edo gehiago izango ditu. Artezkaritza Kontseiluaren aginpideren baten etengabeko ordezkotza Batzorde Betearazleari edo kontseilari ordezkariaren bati emateko, eta kargu horiek beteko dituzten kontseiluko kideak izendatzeko, Artezkaritza Kontseilua osatzen dutenen bi herenen aldeko botoa behar izango da eta ez dute eraginik izango Kooperatiben Erregistroan izena eman arte.

LAU.- Artezkaritza Kontseiluak ahalordetze orokorrak eman ahal dizkio zuzendari nagusiari; horren gaitasunak botere eskriturak emandakoak baino ez dira izango eta Kooperatibaren trafiko arruntari buruzkoak baino ezingo dira izan. Zuzendariaren izendapena eta ahalordetzea Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko dira.

Estatutu hauetako 36.5 artikulua xedatu duen kontrol iraunkor eta zuzena egin ahal izateko, zuzendari nagusiak, Artezkaritza Kontseiluaren bileratara joaten den bakoitzean, aldi horretan

gertatutako jarduera garrantzitsuenen berri emango du eta, gainera, zein kanpoko bileratan parte hartu du ere azalduko du.

Artezkari-tza Kontseiluak beste edozeini ere ahalordetze bereziak eman ahal dizkio.

BOST.- Ondokoak ezingo dira eskuordetu:

- a) Urteko kontuak ematea.
- b) Batzar Nagusiaren balantzeak aurkeztea.
- c) Batzar Nagusiak Artezkari-tza Kontseiluari emandako gaitasunak, Batzar Nagusiak berak berariaz baimentzen ez badu.
- d) Zehapen-gaitasuna.

30. artikulua. Artezkari-tza Kontseilua osatzea eta berritzea

BAT.- Artezkari-tza Kontseiluko kideak, titularrak eta orde-zkoak, Batzar Nagusiak bazkideen artean aukeratuko ditu emandako isilpeko bozketan emandako botoen gehiengoarekin lau urterako. Bazkide ez diren beste pertsona batzuk ere Kontseiluko kide izan daitezke, betiere Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen, abendu-koaren, 43.2 artikulua-k xedatutakoa errespetatzen bada; baina horiek ezingo dira kide guztien herena baino gehiago izan.

Urtero Artezkari-tza Kontseiluaren zati bat berrituko da, kideen laurdenak alegia eta, horretarako, Barne Araudiak zehaztutako hautagai-zerrenden eta aukeraketaren prozesuari jarraituko zaio.

Izendapenak eraginak izango ditu administrazai-leak onartzen duenetik; bazkideak halabeharrez onartu behar du, ez onartzeko bidezko arrazoirik duenean izan ezik. Izendapena egin eta 30 eguneko epean Kooperatiben Erregistroan aurkeztu eta inskribatu beharko da.

BI.- Kontseilu Errektorea gutxienez zortzi kidek eta gehienez hamabik osatuko dute, eta orde-zkoak ere izendatu ahal izango dira. Horien egitekoa izango da behin betiko lanpostu hutsak daudenean haiek orde-zkatzea, estatutuetan geratzen zaien denboran.

Orde-zkoen izendapena Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatuko da.

HIRU.- Osatutako Kontseiluak, lehenengo bileran, kide guztien artean ondoko karguak hautatuko ditu: lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria eta diruzaina. Gainontzekoak kide izango dira.

LAU.- Artezkari-tza Kontseiluko kideren baten postua behin betiko hutsik geratzen bada, berehala orde-zkoen arteko lehenengoak bere gain hartuko du kargu hori, eta hartu ere orde-zkatuari Estatutuen arabera karguan gelditzen zitzaion denboraldirako hartuko du.

Artikulu honetan hiru atalean aipaturiko karguetakoren bat gelditzen bada hutsik, Artezkaritza Kontseiluak bere kideetakoren batez beteko du, izendaturiko ordezkioak barne direla.

Lehendakaria aldi baterako kanpoan denean, lehendakariordeak ordeztuko du eta haren eginkizunak bere gain hartuko ditu. Biek aldi baterako kanpoan badira, Artezkaritza Kontseiluko kide zaharrenak ordezkatuko du.

Idazkaria kanpoan denean, kontseilaririk gazteenak ordeztuko du.

BOST.- Kontseilari batek bere karguari uko eginez gero, arrazoitu egin beharko du bere erabakia, idatziz, eta artezkaritza-kontseiluari jakinarazi; kontseiluak erabakiko du ea justifikatuta dagoen uko egiteko adierazitako arrazoa, eta idatziz jakinaraziko dio interesdunari.

Uko egitearen kalifikazioa batzar orokorrean edo errekurtsio-batzordean errekurritu ahal izango da, nahitaezko bajarentzat ezarritako baldintza eta epe beretan.

Kontseilari uko-egileak bere jakinarazpenean finkaturiko datan izango ditu ondorioak uko-egiteak; data hori ezin izango da izan jakinarazpena baino lehenagokoa.

Kooperatibaren ustetan uko-egitea ez badago arrazoituta, kalte-galerak ordaintzea eskatu ahal izango zaio, hala badagokio, dagokion administratzaileari.

SEI.- Ondokoak ezingo dira administratzaile izan:

- a) Emantzipatu gabeko adingabeak; epaiketa bidez ezgaituak; Konkurtso Legearen arabera desgaituak, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntzaldia amaitu arte; askatasunaren, ondarearen edo ordena sozioekonomikoaren kontrako delituengatik kondenatuak, segurtasun kolektiboaren kontrako delituengatik kondenatuak, Justizia Administrazioaren kontrako delituengatik kondenatuak edo edozein faltukeriagatik kondenatuak, bai eta haien kargua dela-eta merkataritzan ezin jardun dezaketenak ere.
- b) Administrazioarentzat diharduten funtzionarioak eta langileak, hauen egitekoek zerikusirik baldin badute Kooperatibaren beraren jarduerekin, epaile eta magistratuak, eta legezko bateraezintasun batek ukitutako gainerako pertsonak.
- c) Beren edo inoren kontura arituz, Kooperatibarekin lehian dauden jarduerak burutzen dituztenak, edota nolana ere Kooperatibaren aurkako interesak dituztenak, hargatik eragotzi gabe Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 49.4 artikuluan xedaturikoa
- d) Zaintza Batzordeko kideak, langileak eta Kooperatibako Zuzendaritzako kideak.

ZAZPI.- Gai-zerrendan egon gabe, Batzar Nagusiak administratzaileak kargutik kentzea erabaki dezake. Gai-zerrendan jaso ez bada, bertan pertsonalki eta ordezkatuta dauden botoen bi herenek eman beharko dute kargugabetze horren aldeko botoa.

Administratzailearen bat kargutik kentzen bada, administratzaile berria aukeratuko da Batzar Nagusiaren bilkura berean, gai zerrendan halakorik ageri ez bada ere.

ZORTZI.- Edozer dela ere administratzailearen bat kargutik kentzen dutenetan edo kargu baterako izendatzen dutenetan, besteeikiko eragina Kooperatiben Erregistroan izena eman ondoren izango du.

31. artikulua. Artezkaritza Kontseiluaren jarduera

BAT.- Artezkaritza Kontseilua hilean behin bilduko da derrigorrez oporrak direla eta, Kooperatibaren jarduera nagusia geldiarazita dagoenean izan ezik, edo ohiz kanpoko deialdi bidez, administratzailearen batek berariazko eskaria egiten badu; eta bileretan bere aginpideko gai guztiak azter eta erabaki ditzake.

BI.- Artezkaritza Kontseiluaren bileretara lehendakariak dei egingo du administratzaile bakoitzari zuzendutako idazki bidez; idazki horretan gai-zerrenda eta egokitzat jotzen duen dokumentazioa jasoko du.

HIRU.- Artezkaritza Kontseilua balioz osatuko da bilerara kideen erdiak baino gehiago joanez gero.

Nork berak joan behar du, ezin da ordezkariarik bidali edo botoa eskuordetu.

Kontseilari bakoitzak boto bat izango du.

LAU.- Bilerako aktak, lehendakariak eta idazkariak sinatutakoak, ondokoak jasoko ditu: bilera non eta noiz egin den, bertaratuen zerrenda, eztabaidak laburtuta, erabakien testua eta bozketen emaitzak.

BOST.- Arau orokor gisa, erabakiak bertaratutako administratzaileen gehiengo soilaz hartuko dira. Lehendakariaren botoa erabakigarria izango da berdinketa kasuan.

Artezkaritza Kontseiluak, bertaratutakoen bi herenen aldeko botoak behar izango ditu gutxienez jarraian datozen erabakiak hartzeko:

- a) Jarduera zentro nagusi bat edo beronen zati garrantzitsu bat itxi edo lekuz aldatzeko.
- b) Kooperatibaren jardueran murrizketa, hedapen edo berrikuntza nabarmenak eragiteko.
- c) Kooperatibaren antolaketan garrantzi handiko aldaketak egiteko.

- d) Beste erakunde batzuekin, kooperatiba edo bestelakoekin, kooperatibarentzat etengabeko eta balio handiko elkarlana ekarriko duten harremanak sortzeko edo desegiteko.

SEI.- Artezkaritza Kontseiluak zenbait batzorde osa ditzake bere jarduera hobetearren.

32. artikulua. Artezkaritza Kontseiluko kargudunen funtzioak

BAT.- Artezkaritza Kontseiluko lehendakariak ondoko ahalmen hauek ditu:

- a) Batzar Nagusi, Artezkaritza Kontseilu eta Zuzendaritza Kontseiluko lehendakari izatea; horren arabera, eztabaidak zuzendu, moderatu eta koordinatuko ditu eta lege-formalitateak eta hartutako erabakiak betetzen direla zainduko du.
- b) Artezkaritza Kontseiluaren izenean, Kooperatiba ordezkatzeari edozein gaitan, estamentutan, forotan eta ekitalditan, bai horien barruan, bai beste batzuen aurrean.
- c) Dokumentu publiko nahiz pribatuak eman eta sinatzea, Batzar Nagusiak edo Artezkaritza Kontseiluak hartutako erabakiak betetzeko.
- d) Akordioak hartzen direnean Artezkaritza Kontseiluan berdinketa gertatuz gero, bere botoz erabakitzea.
- e) Batzar Nagusiari dagokionez, Zaintza Komitearekin bazkideen bertaratzeari, bozketei eta alderdi formalak betetzeari buruzko alderdiak koordinatzea.
- f) Kooperatibaren ekonomia egoerari buruzko informazioa ematea Zaintza Komiteari.
- g) *Kirol Elkartearen eta Kultur Elkartearen* jarraipena eta kontrola egitea.
- h) Premiazkoak diren erabakiak hartzea, hauen berri berehala emanez Artezkaritza Kontseiluaren lehen bileran.

- i) Bere funtzioak burutzeko beharrezkoak jotzen duen informazio guztia zuzendari nagusiari eskatzea.

Lehendakariak lortu behar du Artezkaritza Kontseiluak bere funtzioa egin dezala eta beharreko agintea izan dezala, bai bazkide taldearen aurrean, bai Zuzendaritzaren aurrean eta, gainera, Artezkaritza Kontseilua dinamizatu eta hori ekimenez hornitu beharko du.

BI.- Lehendakariordeak ondoko funtzioak ditu:

- a) Lehendakariak zuzenean eskuordetutakoak.
- b) Lehendakaria ez dagoenean hari ordezkatzeta.

HIRU.- Idazkariak ondoko funtzioak ditu:

- a) Espedienteak egin eta behar bezala izapidetzea.
- b) Gutunak eta dokumentuak sinatzea, Lehendakariari ez badagokio edo lehendakariak eskuordetu ez baditu behintzat.
- c) Batzar Nagusiaren, Artezkaritza Kontseiluaren eta Zuzendaritza Kontseiluaren deialdiak idatzi eta bideratzea.
- d) Aipatutako organoek egindako bileren aktak egitea eta horiek zaintzea, betiere lehendakariaren oniritziarekin.
- e) Gizartearen erabakiak ziurtatzea eta eskritura publikoa egiten dela zaintzea, betiere lehendakariaren oniritziarekin.
- f) Kooperatibaren liburu eta dokumentuei buruzko ziurtagiriak ematea, lehendakariaren oniritziarekin.

LAU.- Diruzainari dagokio:

- a) Edozein unetan Kooperatibaren kontabilitatea berrikustea eta indarreko kontabilitate-printzipioak eta –arauak betearaztea.
- b) Ohiko Batzar Nagusian urteko kontuak eta Kudeaketa Txostena aurkeztea, Artezkaritza Kontseiluaren izenean.

33. artikulua. Artezkaritza Kontseiluko kideen eskubideak eta ardurak

BAT.- Administratzaileek ez dute ordainsari berezirik hartuko beren karguagatik. Izatekotan ere, beren egitekoak eragiten dizkien gastuak ordainduko zaizkie.

Administratzaileek isilpean gordeko dituzte kargua burutzearen ondorioz ezagutzen dituzten datu konfidentzialak, baita karguak utzi ondoren ere, ondoko salbuespenarekin: legeek datu horiek zabaltzea baimentzen badute edo eta agintariek hala egiteko eskatuz gero.

BI.- Administratzaileek legezko ordezkari eta kudeatzaile leial eta txukunari dagokion arretaz beteko dituzte karguak eta legearen edo Estatutuen kontra egindako ekintzek edo behar bezalako arretarik gabe egin dituzten ekintzek eragindako kalteengatik erantzungo dute.

Artezkari-tza Kontseiluko kide guztiak erantzule solidario izango dira, ekintza edo erabaki kaltegarria hartzeko edo burutzeko orduan parte hartu ez dutenak eta halakorik bazenik ere ez zekitela frogatzen dutenak izan ezik, edo, nahiz eta ezagutu, kalterik izan ez zedin ahalegin guztiak egin zituztenak edo, gutxienik, horien aurka agertu zirenak.

Erantzukizuna berbera izango da ekintza edo erabaki kaltegarria Batzar Nagusiak hartu, baimendu edo berretsi bazuen ere.

HIRU.- Kooperatibak, aurrez Batzar Nagusiak gehiengo arruntez erabakia hartuta, administratzaileei erantzukizunak eskatzeko elkartearen ekintza buru dezake; Batzar Nagusiak erabaki hori har dezake nahiz eta gai-zerrendan halakorik agertu ez. Batzar Nagusiak edonoz emango dio baiezkoa nahiz ezezkoa ekintza aurrera eramateari.

Batzar Nagusiak erantzukizun ekintza bultzatzea edo onartzea erabakiz gero, kaltetutako administratzaileak kargutik kanpo geratuko dira berez eta besterik gabe.

Erabakia hartu eta hiru hilabeteko epean Kooperatibak berak erantzukizunak eskatzeko ekintzarik hasiko ez balu, edozein bazkidek egin ahal izango du.

LAU.- Ekintza hori iraungiko da bi urteko epean, erantzukizuna sortu duten egintzek gertatzen edo horiek ezagutzen diren unetik.

BOST.- Aurreko puntuetan erabakitakoa kontuan izan behar bada ere, hortik kanpo dira zuzenean bazkideen edo beste inoren kaltetan zuzenean administratzaileek egindakoengatik batzuek edo besteek egin litzaketen norbanako ekintzak.

34. artikulua. Administratzaileek hartutako erabakiei aurka egitea

BAT.- Artezkari-tza Kontseiluaren edo Batzorde Betearazlearen erabakiak legearen nahiz estatutuen aurkakoak badira edo bazkide baten, batzuen nahiz beste pertsona batzuen mesedetan, kooperatibaren interesen kontrakoak baldin badira, aurkatu egin ahal izango dira.

BI.- Hauek aurkez ditzakete erabakiak aurkaratzeko egintzak:

a) Edozein bazkidek, 60 eguneko epean, haien berri izan zuenetik aurrera kontaturik, betiere ez bada urtebete igaro erabakia hartu zenetik.

b) Artezkari-tza-kontseiluko eta, baleude, zaintza-batzordeko kideek, 60 eguneko epean erabakia hartu zen egunetik zenbatzen hasita.

HIRU.- Aurkaratzeak aurreikusitako ondorioak izango ditu eta Batzar Nagusiaren erabakiak aurkatzeari buruz xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

35. artikulua. Zaintza Batzordea

BAT.- Zaintza Batzordeak Kooperatibaren jardueraren "ikuskaritza" balitz egiten du lan; Artezkaritza Kontseiluak hiru hilabetean behin informazioa ematen dio.

BI.- Batzar Nagusiak hautatuko dituen lau kidek eta langileen ordezkari batek (behin betiko kontratua duten soldatapeko langileek aukeratutakoa) osatuko dute.

HIRU.- Estatutu hauen arabera bateraezintasunik edo eskubide-etendurarik ez duten bazkideen artetik, Batzar Nagusiak, isilpeko bozketaz, lau lagun aukeratuko ditu eta horiek, langileen ordezkariarekin batera, Zaintza Batzordea osatuko dute; gainera, beste bi ordezko izendatuko ditu; horiek guztiak bi urterako izendatuko dira.

Batzorde horrek egiten duen lehendabiziko bileran lehendakaria eta idazkaria aukeratuko ditu kideen artean.

LAU.- Zaintza Batzordeko kideak erantzukizun, ezintasun, debeku, ordainsari eta inskripzioari dagokienez, Estatutu hauek eta Legeak administratzaileentzat ezarritako arau berberak bete beharko dituzte.

BOST.- Nork berak joan behar du bileretara, ez dago ordezkaritza ematerik. Kontseilari bakoitzak boto bat izango du. Lehendakariaren botoak berdinketak erabakiko ditu.

SEI.- Zaintza Batzordea gutxienez hiruhilekoan behin bildu beharko da. Administratzaileek Kooperatibaren jardueren eta jarduera horiek izan dezaketen bilakaeraren berri emango dute.

Zaintza Batzordeko lehendakariak deialdia egin behar du, idatziz, eta idazki horretan gairerrenda eta egokitzat jotzen duen dokumentazio osoa agertu behar du.

Edozein administratzailek edo batzordekidek organo horretako lehendakariari deialdia egiteko eska diezaioke, idatziz, eta eskaeraren arrazoiak zein diren esan beharko du. Artezkaritza Kontseiluaren edo Batzordearen beraren herenek (gutxienez) eskaera egiten badute eta hilabeteko epean deialdia egiten ez bada, edozein talde eskatzailek egin ahal izango du deialdia.

ZAZPI.- Zaintza Batzordeak ondoko eginkizunak ditu:

- a) Kooperatibaren liburuak berrikustea.
- b) Batzar Nagusia biltzeko dei egitea, kooperatibarentzat onerako beharrezkotzat jotzen duenean, baita, Estatutu hauen 25. artikuluan ezarriaren arabera, biltzeko egindako eskariari administratzaileek ezentzun egin badiote ere.

- c) Ordezkaritza-idazkiak zenbateraino diren egokiak ikuskatu eta kalifikatzea eta, oro har, batzarretara joateko eskubidearen inguruko zalantza eta gorabeherak ebaztea.
- d) Elkartearen erabakiak aurkatzea, legez aurreikusitako kasuetan.
- e) Batzar Nagusiari ebazpena emateko aurkeztu dizkion egoera edo arazo zehatzei buruz argibideak ematea.
- f) Batzar Nagusiak egin behar dituen gainerako organoetako kideen aukeraketa eta izendapena zaintzea.
- g) Administratzaileen eginbeharrak etetea Euskadiko Kooperatiben Legearen 42. artikuluko ezintasun edo debeku-egoeraren batean badaude, eta hala gertatuz gero, beharrezko neurriak hartzea Batzar Nagusia bildu arte.
- h) Urteko kontuak berrikustea eta horien inguruko txostena egitea; baina txosten hori ez da derrigorrezkoa izango Kooperatibaren urteko kontu ikuskatuak onesteko.
- i) Soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzko txostena egitea, baita urteko kontuak ikuskatzen direnean ere.
- j) Eta Euskadiko Kooperatiben Legeak berariaz agintzen dizkion gainerako funtzioak.

Zaintza Batzordeak eskubidea du bere eginkizuna bete ahal izateko beharrezko egiaztapen guztiak egiteko, eta lan hau bere kide bati edo batzuei eman diezaieke, edota adituen laguntza eskatu, beharrezko iruditzen bazaio.

Aurreko h) eta i) ataletan jasotako kasuetan, Zaintza Batzordeak administratzaileei jakinarazi beharko die derrigorrezkoa ez den txosten bat aukeratzeko asmoa duela, Ohiko Batzar Nagusiaren deialdia egiten den unean bazkideek txosten hori aztertzeko aukera izan dezaten.

Batzordekide bakoitzak jakinarazitako edo jasotako informazio guztiak ikusi ahal izango ditu, baina ezingo du jasotako informazioen edo egindako ikerketen emaitzen berri eman Estatutuek xedatutako beste bidez, ezta Kooperatibako kideei ere.

ZORTZI.- Zaintza Batzordeak Legean ezarritako funtzioak beteko ditu, baina ezingo du inola ere zuzenean esku hartu Kooperatiba kudeatzen edo hirugarrenen aurrean ordezkatzeko; ordezkatu du, ordea, administrazio-organoren beraren edo honen edozein kideren aurrean, organoren kontra aurkapen judizialak edo beronen kideekiko kontratu bukatzeak tartean daudenean.

BEDERATZI.- Zaintza Batzordean jarduera araubidea, Estatutu hauetan aurreikusitakora eta, kasua balitz, Barne Araudiak xedatutakora egokituko da.

36. artikulua. Zuzendaritza

BAT.- Artezkaritza Kontseiluak finkatuko du zer Zuzendaritza egitura behar den Kooperatibaren jardueraren kudeaketa profesionalizatua burutzeko.

BI.- Zuzendari titular izateko edo Zuzendaritzako kide izateko, ez da beharrezkoa Kooperatibako bazkide izatea.

HIRU.- Ezingo dute Zuzendaritzako kide izan Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen, abenduaren 20koaren, 44. artikulua aurreikusi dituen debekuren edo bateraezintasunen bat dutenek.

LAU.- Zuzendaritza pertsona bakarrek edo taldekoa izan daitezke.

BOST.- Horren eskumenak Artezkaritza Kontseiluak eskuordetutakoak izango dira beti, honek kontrol iraunkor eta zuzenekoak izango duelarik horren gain.

SEI.- Zuzendaritza Kontseiluak, zuzendaritza guztiak koordinatzeko talde organoa daK Artezkaritza Kontseiluko lehendakariak zuzenduko du eta idazkari lanak Artezkaritza Kontseiluan kargu hori duenak burutuko ditu. Zuzendaritza Kontseiluko bileretara, Artezkaritza Kontseiluko lehendakariak eta idazkariak gain, horretako beste bi kide ere joan beharko dira.

V. ATALBURUA. KOOPERATIBAREN EKONOMIA ARAUBIDEA

37. artikulua. Irizpide orokorrak

BAT.- Kooperatibaren ekonomia araubidearen kudeaketa, ondare-egonkortasuna bermatzeko beharrezko mekanismoak ezarriko dira, bai bazkideen eta kooperatibaren beraren interesagatik, bai kooperatibarekin harremanetan dauden hirugarrengozako bermagatik.

BI.- Kooperatibari eusteko, baita elkarrearen zerbitzuak eta jarduerak bermatzeko ere, Batzar Nagusiak aldizkako kuota batzuk finkatu ahal izango ditu Estatutu hauen 8. artikuluan aipaturiko bazkideentzat.

38. artikulua. Elkarrearen kapitala

BAT.- Elkarrearen kapitala bazkideek, derrigorrez nahiz beren borondatez, egindako ondare-ekarpenek osatuko dute.

BI.- Kapital-ekarpenak, balore-titulu ez diren izendun tituluetan ziurtatuko dira edo partaidetza izenduneko libreta edo liburuxka bidez edo kooperatibako bazkide-fitxan egindako notazioaren bidez, eta horietan, kasua balitz, egindako ekarpenak edo eguneraketak eta bazkideei egoitzatako galerengatik egindako kenkariak jasoko dira.

HIRU.- Kooperatibaren elkarre-kapitala gutxienez SEI MILA ETA HAMAR EURO ETA HAMABI ZENTIMOKOA izango da, guztiz harpidetuta eta ordainduta.

39. artikulua. Derrigorrezko funtsak

BAT.- Ezin da bazkideen artean banatu Derrigorrezko Erreserba Funtsa, Kooperatiba finkatu, garatu eta bermatzeko baita hori.

Derrigorrez ondokoak sartuko dira funts honetan:

- a) Soberakinen kargurako zuzkidurak, Estatutu hauetan aurreikusiak.
- b) Bazkideen baja-kasuetan, hauek elkartearen kapitalean derrigorrez egindako ekarpenen gaineko kenkariak.
- c) Sartzeko kuotak.

BI.- Kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena ezin da bahitu eta honetarako emaitza erabilgarrien kargurako diru-kopuruak, Estatutu hauetan aurreikusiak, erabiliko dira, baita diziplina bidez bazkideei ezarritako zigor ekonomikoen kopuruak ere.

40. artikulua. Partaidetza bereziak

BAT.- Kooperatibak partaidetza bereziz osatutako eskatu ezin den diru-funtsa eduki ahal izango du, eskuz alda daitezkeen agirien bidezkoa. (11/2019 Legearen 67. artikulua).

BI.- Partaidetza berezizat hartuko dira Kooperatibei buruzko 11/2019 Legearen 67. artikuluan ezarritako araudiarekin berariaz bat datozenak, baldin eta, 4. azpiatalean aurreikusitakoa izan ezik, harpidedunak badira kooperatiba ez diren erakundeak, gutxienez bost urte pasa arte berriro eskuratzen ez badituzte, eta, ordainketa ezartzen bada kooperatibaren emaitzen arabera.

HIRU.- Partaidetza hauen gainerako ezaugarriak erabakiko dira, askatasun osoz, jaulkitzeko unean, baina ez dute inola ere Batzar Nagusian botoa emateko eskubiderik emango ezta administrazio organoan parte hartzeko eskubiderik emango ere.

LAU.- Partaidetza bereziak jaulkitzerakoan edo kontratatzerakoan, hirugarrenei eskaini aurretik, bazkideei eta kooperatibako soldatapeko langileei eskaini beharko zaie, gutxienez, ehuneko berrogeita hamar.

Eskaintza horren publizitatea izango da Batzar Nagusiak deitzeko ezarrita dagoen publizitatea bestekoa.

41. artikulua. Hasierako derrigorrezko ekarpena eta sartzeko kuota

BAT.- Bazkide izateko (bazkide erabiltzaile zein bazkide laguntzaile) derrigorrez Elkartearen kapitalari hasierako ekarpena egin behar zaio eta honakoa izango da: HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO.

BI.- Bazkide izateko, onartua izan diren unean, hasierako ekarpenarekin batera, sarrerako kuota bat ere ordaindu beharko dute, eta hori ezin izango da izan Bazkide izateko garai bakoitzean indarrean dagoen gutxienezko eta derrigorrezko Elkartearen kapitalerako egin behar den ekarpenaren ehuneko hogeita bost baino handiagoa.

HIRU.- Sarrerako kuotak ez dira Elkartearen kapitalaren parte izango, Derrigorrezko Erreserba Funttsaren parte baizik, eta ezingo zaizkio bakoitzari itzuli.

LAU.- Urtero, bazkide berrien sarrera-kuotaren eta hasierako derrigorrezko ekarpenaren zenbatekoa finkatuko ditu Batzar Nagusiak.

42. artikulua. Bazkidearen derrigorrezko gutxienezko ekarpena

BAT.- Bazkideak, bazkide-izaerari eusteko, Elkartearen kapitalean egindako derrigorrezko gutxieneko ekarpenaren titular izan behar du, eta ekarpen hori gutxienez kooperatiban sartutako egunean indarrean zegoen hasierako derrigorrezkoa ekarpenaren zenbatekokoa izango da.

BI.- Kooperatibak bazkideei galerak egozteagatik edo Estatuetan aurreikusitako zigor ekonomikoren batengatik bazkidearen ekarpenaren saldoa aipatutako gutxienekoaz behetik geratuko balitz, beharturik dago aipatutako kopuru horretara arte beharrezkoak diren ekarpen osagarriak egitera, hala eskatzen zaionetik hiru hilabeteko apean.

HIRU.- Batzar Nagusiak derrigorrezko beste ekarpen batzuk erabaki ditzake, kasua balitz, eta horien zenbatekoa eta zein epe eta baldintzarekin ordaindu beharko diren finkatuko du.

43. artikulua. Aldizkako kuota

Batzar Nagusiak bazkideen aldizkako kuota finkatuko du; kuota hori ez da elkartearen kapitalaren parte izango eta ezingo da itzuli.

44. artikulua. Borondatezko finantzazioa

Elkartearen kapitalaren egonkortasuna sendotu, baliabideak eskuratzeko aukerak gehitu eta, aldi berean, Kooperatibaren bazkideen inplikazioa areagotzeko, Kooperatibak onartu eta sustatu egingo du bazkideen borondatezko finantzaketa, borondatezko ekarpenen edo partaidetza berezien bidez egina; gainera, elkartearen kapitalean sartu gabeko beste finantzaketa bide batzuk (partaidetza-tituluak, obligazioak, maileguak, etab.) sustatzeko aukera ere badu.

45. artikulua. Ekarpenerak ordaintzea eta balantzeak eguneratzea

BAT.- Derrigorrezko ekarpenek ez dute interesik sortuko.

BI.- Borondatezko ekarpenek ezin izango dute diruaren legezko interesa baino interes handiagorik sortu.

HIRU.- Kooperatibaren balantzea erregularizatu ahal izango da zuzenbide arrunteko gainerako sozietateetarako aurreikusitako baldintza eta etekin berberekin.

Aktiboak arautzearen ondoriozko plusbalioa, hala badagokio, erabiliko da, oso-osorik, aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko, eta gainerakoa Erreserba Funts banaezinera bideratuko da.

46. artikulua. Ekarpenerak eskualdatzea

BAT.- Ekarpenerak eskualdatu ahal izango dira:

- a) Bizien arteko egintzen bidez, bazkideen artean eta hiru hilabeteko epean bazkide egiteko hitza eman dutenen artean, estatutuetan erabakitako moduan.
- b) Heriotzagatiko oinordetzagatik, eskubidedunentzat izango dira bazkide izan eta horrela eskatzen badute. Bestela, lehenik eta behin bazkide moduan onartuak izan beharko dira 8. artikulua dioenaren arabera. Bazkide izateko onarpena heriotza gertatu ondoko hiru hilabeteko epean eskatu beharko da.

Bestela, elkarteari egindako ekarpenari dagokion diru-kopurua jasotzeko eskubidea izango dute, hurrengo atalean oharmandako modu eta neurritan.

Berreskuratzeko dituzten diru-kopuru horiek ez dira gaurkotuko, diruaren legeko interesak jasotzeko eskubidea izango bada ere.

BI.- Bazkide baldintza eskualdatzea.

Banaketa, dibortzio eta deuseztasun kasuan, bazkideak ezkontide ohiari bazkide baldintza igorri ahal dio, eta honek ez du hasierako ekarpenik edo sarrera-kuotarik ordaindu beharko. Bazkidea hilez gero gauza bera gertatuko da. Kasu horretan bazkide egoera beste gurasoari igorriko zaio. Guraso biek hilez gero, adin txikiaren ordezkioak hartuko du bazkideetza. Kasu guztietan, bazkide berriak Estatutu hauetako 8. artikulua xedatutako baldintzak bete beharko ditu.

47. artikulua. Ekarpenera ordaintzea

BAT.- Berreskuratzeko eskubidea

Bazkide egoera galtzen den kasu guztietan, bazkide horiek edo horren eskubidedunek ahalmena dute hasierako derrigorrezko ekarpena itzul diezaieten eskatzeko.

Bazkideei dirua itzuli zaielako kapital soziala murriztea, kapitalaren titular ziren bazkideen bajagatik bakarrik gerta daiteke.

BI.- Kenkariak

Bazkide erabiltzaileek itundu zen gutxieneko egonaldia betetzen ez badute, arrazoitu gabeko baja-kasuetan portzentajezko hamar puntu arte gehitu ahal izango zaio bestela ere kendu beharrekoari. Artezkaritza Kontseiluak du kasu bakoitzean kenkari ehunekoari buruzko erabakia hartzeko eskumena.

Egin daitezkeen aipatutako kenkariet gain, baja hartzen duen bazkideari itzuli beharreko ekarpenean dagokion kenkaria burutzearen, baja ematen duen ekitaldiaren amaieran balantzeak islatutako galerak ere aintzat hartuko dira, ekitaldi horretakoak izan, aurreko beste batzuetakoak izan edo konpentsatu gabe badaude ere.

HIRU.- Itzulketarako baldintzak

Ekarpena berreskuratzeko epea, behin baja hartuz gero, ez da bost urtekoa baino luzeagoa izango. Bazkidea hilez gero, eragile izandako gertakaria izatetik gehienez ere urtebeteko epean itzuli beharko zaie eskubidedunei diru kopuru hori.

Kooperatibak erabaki dituen itzulketen ekarpenei dagokienez, berreskuratzeko dituzten diru-kopuru horiek ez dira gaurkotuko, baina izango dute diruaren legezko interesak (onartzen direnetik) jasotzeko eskubidea.

48. artikulua. Soberakinak banatzea

Soberakin erabilgarrien banaketa, dagozkien zergak kendu eta aurreko ekitaldietako galerak konpentsatu ondoren, Batzar Nagusiak erabakiko du ondorengo arauei jarraituz:

- a) Ehuneko hogeita hamarrekoa gutxienez Derrigorrezko Erreserba Funtsera eta Kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenera bideratuko da; hortik ehuneko hamar gutxienez Kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenerako eta ehuneko hogeitaz Derrigorrezko Erreserba Funtserako izango da.

Derrigorrezko Erreserba Funtsa Elkartearen kapitalaren erdiaren pareko iristen ez den artean, Kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenerako ezarritako gutxienezko diru-kopurua erdira murriztu daiteke.

- b) Gainerako soberakinak Borondatezko Erreserba Funtz bat eratzeko erabiliko dira; Etorkizuneko Galerak Konpentsatzeko Funtz Berezia deituko da, eta banaezina izango da likidazio-kasuan izan ezik.

49. artikulua. Kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena

BAT.- Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 70. artikulua 2.a atalean aipatutako soberakinen gainean ezarri beharreko derrigorrezko ekarpena, Estatutuetan edo Batzar Nagusian finkatutako oinarritzko lerroak aplikatuz, interes publikoko ondoko helburuetako batera bideratuko da:

- a) Bazkideak eta langileak kooperatibismoaren, kooperatiba-jardueren eta lanpostuarekin lotura ez duten beste arlo batzuetan trebatzeko eta hezteko.
- b) Kooperatiben arteko harremanak sustatzeko, kooperatiben arteko promoziorako, laguntzarako, zuzendaritzarako edo horien aldeko jarduerak burutzeko sortu diren entitateetan parte-hartzeagatikoko gastuak ordaintzeko aukera barne.
- c) Hezkuntza, kultura, lanbide eta laguntza mailako sustapenerako, baita kooperatibismoaren ezaugarriak zabaltzeko kooperatibaren gizarte eremuan zein gizartean orokorrean eta euskararen erabilera sustatzeko ere.

- d) Euskal kooperatiben mugimenduak sustatutako irabazi asmorik gabeko entitate bati diruzko ekarpenak eginez kooperatiba-enpresa berriak sustatzeko.
- e) Euskararen erabilera sustatzea.
- f) Bazkideei eta langileei formakuntza eta heziketa ematea, kooperatibeetan emakumeen eta gizonen berdintasuneranzko urratsak egiteko politika eraginkor bat sustatze aldera.

BI.- Derrigorrezko ekarpen hori, aurreko ataleko a), b) eta c) letretan adierazitako helburuetarako erabil daiteke, irabazi asmorik gabeko entitateari edo aurreko 1 b) atalean aipatutako kooperatiben arteko entitateetako bati diruzko ekarpenak eginez.

Bitarteko entitate horiei ekarpen hori egingo zaio ondoko baldintzarekin: adierazitako interes publikoko helburu badute, bai bitarteko entitateak berak egiten dituen jardueren bidez, bai jasotako baliabideak beste pertsona fisiko edo juridiko batzuei emanaz horiek burutzen dituzten jardueren bidez.

HIRU.- Kooperatibak ezingo du ekarpen horretaz baliatzeko gaitasunik, ez bada adierazitako interes publikoko beharretara bideratzeko; beraz, bahitu ezina da eta balantzearen pasiboan jaso beharko da.

LAU.- Ekarpen horretarako aurreikusten diren helburuetarako erabiliko dira kooperatibak bazkideei jarritako zigor ekonomikoak.

BOST.- Kooperatibak berak finkatutako interes publikoko helburura bideratu ez den ekarpen horren zenbatekoa, soberakinaren banaketa onetsi eta hurrengo ekitaldi ekonomikoan, irabazi asmorik gabeko entitateei eman beharko zaio ekarpen horretarako finkatu den interes publikoko helburuetarako erabil ditzaten.

50. artikulua. Galerak egoztea

BAT.- Galerak kontu berezi batera egotz daitezke, etorkizuneko emaitza positiboen kargura amortizatzeke, gehienez ere legeak ezartzen duen 5 urteko epearen barruan.

BI.- Galeren egozketa, legezko mugen barnean, ondorengo arauari jarraituz egingo da:

- a) Lehenik, Borondatezko Erreserba Funtsetara egotziko dira, halakorik balego, eta galeren kopuru osoa egotz daiteke.
- b) Bigarrenik, erabilgarri diren Egunerapen Funtsetara egotziko dira.
- c) Hirugarrenik, Derrigorrezko Erreserba Funtsera egotziko dira, legeriak gehienez onartzen dituen mugen barnean beti (Euskadiko Kooperatiben Legearen 73.2.b artikulua).
- d) Egozteke gelditzen diren gainerako galerak bazkideen artean banatuko dira daukaten kooperatiba-kuotaren arabera.

51. artikulua. Langileen ordainsariak

Besteren kontura ari diren langileen ordainsariak, Kooperatibako langileei ezar dakiekeen Hitzarmen Kolektiboan jasotakoak izango dira, edo, bestela, Kooperatibaren beraren Hitzarmen Kolektiboaren esparruan bildutakoak.

VI. ATALBURUA. ELKARTEAREN DOKUMENTAZIOA ETA KONTABILITATEA

52. artikulua. Elkartearen dokumentazioa

BAT.- Kooperatibak ondoko liburu hauek egin eta egunean izango ditu:

- a) Bazkideen erregistroa
- b) Elkartearen kapitalarekiko ekarpenen erregistroa
- c) Batzar Nagusiaren, Artezkaritza Kontseiluaren eta, halakorik balego, Zaintza Batzordearen Akten liburua
- d) Inbentarioen eta balantzen liburua eta liburu egunkaria.
- e) Lege xedapenek exijitutako beste guztiak.

BI.- Liburuak eta gainerako kontabilitateko erregistroak koadernatu behar dira eta orrialde bakoitza zenbatuta izango dituzte eta, erabili baino lehen, Kooperatiben Erregistroak gaitu beharko ditu. Informatika prozeduren edo beste prozedura batzuen bidez egiten diren oharra eta idazpenak ere onartzen dira; horiek guztiak ondoren korrelatiboki koadernatuko dira eta derrigorrezko liburu bihurtuko dira. Horiek guztiak Kooperatiben Erregistroak legeztatu beharko ditu sei hilabeteko epean ekitaldia amaitu denetik.

Bat zenbakiko c) atalean aipatutako liburuak legeztatu arte, Kooperatiben Erregistroa dagozkien akta ziurtatuen kopia bidali beharko da bi hilabeteko epean horiek onartzen direnetik.

53. artikulua. Kontabilitatea

BAT.- Kooperatibak erazko kontularitza eraman behar du, bere jardunerako egokia, partida bikoitzaren sistemaz, Merkataritza Kodearekin bat etorritik eta aplikagarri diren beste lege-xedapenen arabera.

BI.- Ekitaldia ixtean, administratzaileek kooperatibaren urteko kontuak formulatu beharko dituzte, hiru hilabeteko epean, gehienez ere, sozietatearen ekitaldia ixten denetik aurrera kontaturik eta bat etorritik aplikagarri zaion informazio finantzarioari buruzko araudi-esparruarekin. Kontuetan, jaso beharko dituzte balantzea, irabazi-galeren kontua, memoria eta, hala badagokio, ondare garbian izandako aldaketen egoera eta efektibo-fluxuen egoera.

Administratzaileek kudeaketa-txostena ere aurkeztuko dute ekitaldiko kontuekin batera, merkataritza-legeriari jarraituz, eta, hala dagokionean, informazio ez-finantzarioaren egoera kudeaketa-txostenaren barruan edo beste txosten batean jasota.

HIRU.- Kooperatibaren ekonomia-ekitaldia eskola ikasturtearekin bat etorriko da, urte bakoitzeko irailaren 1ean hasi eta hurrengo urteko abuztuaren 31n bukatuko delarik.

55. artikulua. Kontuen Ikuskaritza

Kontuen Ikuskaritzei buruzko Legean eta hori garatzen duten arauetan ezartzen den bezala, kooperatiba aurkeztu egin beharko da kanpoko kontu-ikuskaritzara.

Batzar Nagusiak izendatuko ditu kontuen ikuskariak. Baina Batzar Nagusiak izendapena behar bezala egiten ez badu edo izendatutako pertsonak ezin badituzte euren funtzioak bete, administratzaileek izendapen hori egiteari ekin diezaiokete eta horren berri emango dute hurrengo Batzar Nagusian.

56. artikulua. Legelari aholkularia

BAT.- Administratzaileek legelari aholkulari bat izendatuko dute.

BI.- Batzar Nagusiak edo Artezkaritza Kontseiluak onartu eta kooperatiben Erregistroan sar daitezkeen erabakiak izenpetuko ditu legelari aholkulariak, zuzenbidera egokitzen direnez ebatziz.

Erabaki horien egiaztagiriek jasota utziko dute legelari aholkulariak ebatzitako erabaki horiek akten liburuan agertzen direla.

HIRU.- Legelari aholkulariak, zabarkeriaz jokatzuz gero, erantzukizun zibila izango du kooperatibaren, haren bazkideen eta besteen aurrean.

LAU.- Eginkizun horren burutzapena bateraezina da zuzendari-kudeatzaile, administratzaile edo Zaintza Batzordeko kide izatearekin.

VII. ATALBURUA. DESEGITEA ETA KITATZEA

57. artikulua. Desegitea

BAT.- Honako hauek dira Kooperatiba desegiteko arrazoiak:

- a) Estatuetan finkatutako epemuga betetzea.
- b) Sozietatearen helburua betetzea, edo argi eta garbi ikustea ezin dela hura bete
- c) Bi urtetan jarraian, sozietatearen organoak geldirik edo jarduerarik gabe geratzea, edo, arrazoirik gabe, kooperatiba-jarduera etetea.
- d) Bazkide-kopurua murriztea, kooperatiba eratzeko legez eskatzen den gutxienezkotik behera, murrizpenak hamabi hilabete baino gehiagotan irauten badu.

- e) Elkaratearen kapitala murriztea, estatutueta ezartzen den gutxienekotik behera, hamabi hilabetetan gaintzen ez bada gutxieneko diru-kopuru hori.
- f) Kooperatibaren bategitea edo erabateko zatiketa.
- g) Kooperatiba-elkaratearen porrota, hala aldarrikatzen duen epailari-ebazpenaren ondorioz.
- h) Batzar Nagusiaren erabakia, 38.2 artikuluan ezarritako gehiengoaren erabakiz. Kooperatibei buruzko 11/2019 Legean edo Estatutu hauetan ezarritako beste edozein arrazoi.

BI.- Desegiteko erabakiak gehiengo arruntez hartuko dira, f) eta h) kasuetan izan ezik, hauetan bertan diren eta ordezkatura dauden botoen bi heren behar baitira.

Kausa horietakoren bat gertatuz gero, administratzaileek Batzar Nagusira dei egin behar dute bi hilabeteko epean. Zaintza Batzordeak edo edozein bazkidek eskatu ahal izango die administratzaileei deialdia egin dezaten.

Batzar horretarako deialdia egiten ez bada, finkatutako epean biltzen ez bada edo, nahiz eta bildu, erabaki hori hartu ezin bada edo desegitearen aurkako erabakia hartzen bada, administratzaileek Kooperatiba judizialki desegitea eskatu beharko dute eta, gainera, edozein interesdunek hori eskatu ahal izango du. Kasu guztietan, interesduntzat hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako Saila, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorena eta badagokio, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa.

Desegiteko erabakia edo horrela aitortzen duen ebazpen judiziala Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Kooperatibak egoitza duen lurralde historikoan zabalkuntza handia duen egunkariaren batean argitara emanez.

58. artikulua. Kitatzea

BAT.- Batze- eta zatitze-kasuetan izan ezik, behin kooperatiba desegin ondoren, hiru bazkide kitatzaile izendatuko ditu desegintza erabaki duen Batzar Nagusiak berak edo helburu horrekin deitua izan denak.

Kitatzaileen izendapena Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da.

Desegin ondoren bi hilabete igaro eta ez badira kitatzaileak izendatu eta horiek onarpena adierazi, administratzaileek Elkaratearen egoitza dagoen lekuko Lehen Auzialdiko Epailari eskatuko diote kitatzaileak izendatzea, eta ez da derrigorrezkoa hauek kooperatibako bazkide izatea.

Kitatzaileek talde-lana egingo dute, beren erabakiak Akten Liburuan jasoz.

BI.- Kitatzaileek likidaziorako beharrezko eragiketa guztiak egiteko ahalmena izango dute eta kooperatibaren ordezkari izango dira epailetan nahiz epailetatik kanpo, hirugarrengoen

aurrean kooperatiba behartzen dutelarik administratzaileek bezalaxe, eta bereziki ondokoak egin beharko dituzte:

- a) Azken balantzea egitea, kooperatibaren azken ogasun sozial edo ondare garbiaren zenbatekoa eta osaera garbi azalduz, baita, hala balegokio, banatzeko proiektua ere, eta Batzar Nagusiari aurkeztea onespena emateko, aurrez Zaintza Batzordearen eta, kasua balitz, ikuskatzaile parte-hartzaileen txostena izanik.
- b) Indarreko legeriak ematen dizkien aginpide guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENENGOA. Delituen prebentzioa eta euren jarraipena egiteko mekanismoak

BAT.- Kooperatibak delituak prebenitzeko eredu bat edukiko du, eta haien segimendua egiteko mekanismo bat ezarriko du.

BI.- Eredu horren edukia Kontseilu Errektoreak onartuko du eta honako hauek jasoko ditu: arriskuen mapa; erabakiak hartzeko protokoloa; kudeaketa eredua; salaketa sistema; zehapen araubidea; egiaztapen sistema; aldizkako berrikuspena; eta Delituak Prebenitzeko Ereduaren eguneratzea.

HIRU.- Delituak prebenitzeko eredua eta eredu horrek funtzionatzen duela eta betetzen dela gainbegiratzeko ardura ekimen botere eta kontrol botere autonomoak dituen kooperatibako organo bati eman behar zaio, edo, bestela, pertsona juridikoaren barne kontrolen eraginkortasuna ikuskatzeko legezko funtzioa duen organo bati. Kooperatibak 250 besteren kontura diharduten langile eta bazkide langile baino gehiago ez baditu, Kontseilu Errektorearen esku utziko da funtzio hori. Kopuru hori gainditzen badu, ordea, organo espezifiko bat izendatu beharko da funtzio horiek bere gain hartzeko, zigor arloko indarreko araudian horrela ezarrita dagoelako.

BIGARREN XEDAPENA. Kooperatiba indarkeria sexistarik gabeko eremu bat izateko baliabide espezifikoak

BAT.- Kooperatibak indarkeriarik gabeko lan eremuak edukiko ditu, non emakume eta gizonentzako berdintasun printzipioak errespetatuko diren.

BI.- Kooperatibak sexu jazarpenagatiko eta sexuan oinarritutako jazarpenagatiko protokolo bat edukiko du. Protokolo horretan, sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruz aurkeztutako erreklamazioak eta salaketak ebazteko jarduketak jasoko dira, eta behar diren bermeekin aplikatuko da.

HIRU.- Kooperatibak beharrezko prestakuntza eta informazioa eskainiko die bere bazkide langile guztiei eta besteren konturako langile guztiei, aipatutako eskubideak erabat errespetatu beharraz jabetu daitezten.

HIRUGARREN XEDAPENA. Arbitraje kooperatiboa.

Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenaren arbitrajearen mende jarri behar dira kooperatibaren eta haren bazkideen artean edo kooperatibako bazkideen artean sortzen diren auzigaiak, baita likidazio-garaian ere, kooperatibako barne-bideak derrigorrez agortu ondoren, kontziliazioarena ere barne dela, betiere aipaturiko organoa eskuduna baldin bada auzi horiek ebazteko. Berariaz hitzeman behar dute alderdiek aintzat hartuko dutela arbitraje-laudoa.